

hh
hik hasi

186



HERRI HOBEAREN ALDE • RAFAEL BISQUERRA •

0-3 ZIKLOKO HEZITZAILEEN FORMAZIOA • MONTSERRAT IKASTETXEA

• TONUCCI ESKOLA TXIKIEKIN • JONE URIA

6. elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa

oinarriak:
www.elkar.com-en
eta elkar sareko
liburu-denda
guztietan



antolatzailea:

elkar
fundazioa

laguntzailea:



aurkibidea



10
gaia

HERRI HOBEAREN ALDE

Umeen eskolaz eta etxeaz kanpoko bizimodua parte hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra izan dadin, komunitateko zenbait eremutan baliagarria izan daitekeen egitasmoa landu dute hainbat eragilek. Haurrak erdigunean jartzen dituen planteamendu politikoa eta pedagogikoa da. Aniztasuna, inklusibitatea eta berdintasuna ditu oinarri.



18
elkarrizketa

RAFAEL BISQUERRA

Hezkuntza emozionalean aditua da Bisquerra. Ikasleak gaitasun emozionaletan trebatzea funtsezkoa dela uste du XXI. mendeko erronka berriei aurre egiteko, eta horretarako curriculum akademiko osoan hezkuntza emozionala garatzeko bitartekoak jarri beharko lirakeela dio, "emozioak lantzeko bizitza osoko entrenamendua behar baita".

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

HERRI HOBEA LORTZEKO, haurrak erdigunean

18 elkarrizketa

RAFAEL BISQUERRA, psikopedagogo

24 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa

28 esperientziak

MONTERRAT IKASTETXEA: adimen aniztasunaren eredu

32 ekarpenak

ESKOLA TXIKIAK: txiki izatearen abantailak

36 galdeidazue

Zer funtzio bete dezake irakasle-*coach*ak gaur egungo hezkuntza-sisteman? **ASIER GALLASTEGI**

40 hik hasi-ren proposamena

BADU BADA erakusketa

42 Atzeko atetik

JONE URIA

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Arantzazu Muñoa, Jon Altuna eta Iraide Baskaran. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANZA S.A.L. Azaleko irudia: Hik Hasi. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2014-02-20). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eman diezaiogun hezkuntzari garrantzia



Harpide zaitez, eta indartu ezazu hezkuntza komunitatea

-50 euro urtean jarrita 10 hik hasi aldizkari, ale monografikoak eta Euskal Herriko baliabide pedagogikoen gida. Horrez gain, prezio bereziak Udako Topaketetan, jardunaldietan eta argitararaten ditugun gainontzeko materialetan.

-20 euro urtean ordainduta 4 Hazi Hezi aldizkari.

Bi aldizkariak hartuta, 65 euro urtean.

Duela bi urte agortutako CDa berrargitaratua



- Bidaietako jolasak
- Zotz egitekoak
- Zabuan kantatzekoak
- Txalotako jolasak
- Soka saltoan aritzekoak
- Txikientzako jolasak
- Korroan aritzekoak
- Gomatakoak
- Behatzen jokoak
- Taldean aritzeko jolasak
- ...

www.hikhasi.com

editoriala martxo

Entzuten jakitearen bertutea



Herri biziago eta osasungarriagoak izateko, hurrei hitza eman behar zaie, baina aldi berean, helduok haien hitza entzuteko jarrera irekia izan behar dugu. Izan ere, haurrak entzuten ikasiko du, baldin eta berari entzuten bazaio.

Gaitasun sozialetan lehena entzuteko gaitasuna dela dio Rafael Bisquerra psikopedagogoak aldizkari honetan egindako elkarrizketan, baina horretan ez dakigula denok. Benetan, entzuteko gai al gara? Albokoa zerbait esaten ari denean aditzen al diogu?

Ikasleei, entzuten ez badute, denbora galtzen ari direla ikusarazi behar zaiela nabarmentzen du Bisquerrak; irakasleen kasuan, berriz, hurrei ez ezik, gurasoei entzuten jakitea ere garrantzitsua dela: “Irakasleok asko hitz egiten dugu, gehiegi, sarritan. Askotan, badirudi hitz egiteagatik ordaintzen digutela”.

Asier Gallastegik ere, irakasle-coachak gaur egungo hezkuntza-sisteman izan ditzakeen funtzioez galdetuta, behin eta berriz azpimarratzen du entzuten jakitearen garrantzia. Edukien zabalkundeak eta edozein informazio edonoren eskura egoteak ekarri duen hezkun-

tza-testuinguru berrian, ikasleak irakasleak baino gehiago jakin dezakeela dio, eta beraz, ikasleek edukiak erlazionatu, kritikoki aztertu eta esanguraz barneratzeko prozesuan, aktiboki entzuten jakitea ezinbestekoa dela: “Garrantzitsua da besteari ez mozten ikastea, bestearen erritmoa behatzea eta errespetatzea, isiluneei tartea egitea, adi entzutea...”.

Baina nola ikasi horretan? Esateko, egoki komunikatzeko eta jendaurrean aritzen ikasteko ikastaro eta tailer ugari antolatu ohi dira. Entzuten ikasteko aldiz, egiten al da saiorik? Nola ikas dezake pertsonak entzuten?

Izan ere, askotan ez al da entzutea esatea baino ariketa zailagoa? Ez al zaigu behin baino gehiagotan gertatu geuk esan beharrekoak esan eta entzuteko txanda iritsitakotan, aditzen baino gehiago, ondoren esan behar dugunean pentsatzen aritea?

Zenbaki honetako gai nagusian jorratutako *Umeen aisialdi parte hartzailea, euskalduna, bezitzailea eta herritarra garatzen* izeneko oinarritzko dokumentuak dioena geure eginez gero, ozen esan dezakegu haurrak entzuten ikasiko duela, baldin eta berari entzuten bazaio. Herri, auzo nahiz komunitate biziagoak eta osasungarriagoak nahi baditugu, hurrei eta gaztetxoei protagonismoa eman behar zaiela dio dokumentuak, nola eskolan hala kalean. Horrek esan nahi du hitza eman behar zaiela, baina aldi berean, helduok haien hitza entzuteko jarrera irekia izan behar dugula.

Beraz, entzuten ikasteko taillerrik egingo ez badugu ere, eta sarritan besteak diotenari adi egotea kosta egingo bazaigu ere, izan dezagun gogoan Citioneko Zenonek, Grezia garaiko pentsalari hark zioena: “Bi belarri eta aho bakarra dauzkagu, gutxiago hitz egin eta gehiago entzuteko”.

hizpide

LOMCEren aplikazioa saihesteko pauso bateratuak proposatu dituzte

2014-2015 datorren ikusturtean eta hurrengoetan Hego Euskal Herriko eskoletan LOMCE legea aplikatu ez dadin, zenbait pausu emateko proposamena luzatu dute hezkuntza erreformaren aurka diren hainbat talde eta erakundek elkarrekin.

Ikastetxeetako ikasleekin, langileekin, gurasoekin eta oro har, herritar guztiarekin batera landuko eta garrantuko dira etorkizunera begira zaindu beharreko ardatzak, besteak beste, ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen eta curriculum propioa

izango duen heziketa integrala, hori ziurtatzeko baliabideak, eta parte-hartze zein funtzionamendu demokratikoa ziurtatzeko ikastetxeen autonomia.

Asko dira LOMCE legearen aurkako ahotsak. Besteak beste, ordezkari politikoak ozen ari dira erreforma kritikitzen. Esaterako, Espainiako Kongresuko oposizioeko taldeetako ordezkariak legea gera dezatela eskatu dute denek batera: PSOEk, EAJk, Amaiurrek, Geroa Baik eta Ezker Anitzak, ia oposizio osoak beraz.

Bestalde, Iñigo Urkullu lehendakariak Wert ministroarekin elkartu ondoren adierazi zuen ez dela posible hurrengo urtean legea aplikatzea: "Ez dago inolako baldintzarik legea onartu eta aplikatzeko. Gabeziak ditu edukian, ezartzeko moduan eta zehazturiko epeetan. Ez gaude batere ados, eta gainera, ezinezkoa ikusten dugu denbora tarte honetan ezer egitea", hala hitz egin zuen Madrilen egon eta hurrengo egunean Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuarekin batera egindako agerraldian.



Hernaniko Orona fundazioaren egoitzan hainbat eskola, udal eta eragile *Irrizale* izateagatik omendu zituzten.

Irrizale izendapenak banatu dira

Azken urteotan Irrien Lagunak egitasmoari babes eman dioten udal, ikastetxe eta enpresa batzuetako ordezkariak *Irrizale* izendapena jaso zuten otsailaren 20an Orona fundazioak Hernaniko Galarreta auzoan duen egoitzan. Elkarlanean jarraitzeko asmoa berretsi zuten, eta esker onez, baikor mintzatu zen Joxe Mari Agirretxe *Porrotx* pailazoa: «Irria aldizkaria sortu genuen duela hiru urte eta webgunea martxan dago. Euskal Herria herri txikia da, hizkuntza gutxitua dugu eta denen arteko elkarlana ezinbestekoa da, dauzkagun ilusioak, ametsak eta proiektuak lortzeko».

izan da

Seaska, frantses Gobernuaren eta poliziaren presiopean

Paxkal Indo, Seaskako presidentea frantsez poliziaren aurretik pasazen otsailaren 17an beste kide batekin, otsailaren 1ean Baionan Seaskak egin zuen manifestazioan Su-prefeturaren aurka zenbait lagunek arrautzak jaurti zituztelako.

Bertan, Seaskak sufritzen duen “jazarpena” salatu zuten 50 pertsona inguruk, “Lege bat ikastolentzat” leloa zeraman pankartari helduta. Denan den, auziak ez du aurrera egin eta bertan behera gelditu da.

Seaskak behin eta berriro salatu du ikastolen aurkako presioa. Azkeneko, Hur Gorostiagak hitz egin du maiatzaren 31n Senperen “31 min-tza!” leloarekin egingo den Herri Urrats festaren aurkezpenean: “Frantziar Gobernuak Udaletxeak mehatxatu ditu ez diezaieten laguntzarik eman ikastolei. Ikastolen alde egin ez gero diru laguntzak kenduko dizkietela eta auzitara eramango dituztela jakinarazi die Gobernuak Iparraldeko Udalei”.

Haur-eskolak euskaraz nahi dituzte Iruñeko gurasoek



Iruñeko gurasoek hiriko haur-eskolak euskaraz izateko eskatu dute. Izan ere, Nafarroako hiriburuan euskarazko bi haur-eskola baino ez daude, eta biak Txantrea auzoan. Hiriko gainerako auzoetan, aspalditik ari dira haur-eskolak euskaraz ere izateko eskatzen. Orain arte, ordea, udalak uko egin dio eskaria aintzat hartzeari.

Haur Eskolak Euskaraz plataformaren eskariarekin bat egiten dute hainbat sindikatu eta elkartetako ki-deek: bertzeak bertze, Kontseilukoek, Sortzenekoek, EILASeskoek eta LABekoek.

Martxoaren 3tik 18ra egongo da irekita Iruñeko haur-eskoletan izena emateko epea. Tarte horretan kanpaina bat martxan jarriko dute haur-eskolak euskaraz nahi dituzten gurasoek eta euskalgintzako hainbat taldek. Helburua da euskarazko haur-eskolak eskatzen dituzten gurasoen kopurua ezagutzea.

Ikasleen emaitzen arteko aldea handitu da Erkidegoan

EAEko ikasleen emaitzen artean haustura irekitzen ari dela ohartarazi dute Jaurlaritzako arduradunek. Azken PISA txostenaren arabera, emaitza orokorrak onak badira ere, aurreko txostenean baino diferentzia handiagoak ikusi dituzte ikasle batzuen eta besteen artean. Haustura hori zuzentzeko Hezkuntza Sailak “Hamaika Esku” plangintza jarriko du abian, hain justu, batez beste-koaren azpitik dauden ikasleen errendimendua hobetzeko.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskolen ezaugarri nabarmenetarikoak ikasketa mailaren arteko oreka eta berdintasuna izan bada ere, azken urteotan aldaketa nabaritu dute, aldea areagotu egin da ikasle etorki-

nekiko, eta adibidez, matematikan, 500 puntu inguruko emaitzetan, etorkinek 85 gutxiago dituzte, batez beste.

Hezkuntza Saileko arduradunen iritziz, konponbidea ez da erraza, ikasle horiek curriculum atzeratua dute sarri, gehienetan hizkuntza berria ikasi beharra ere bai eta horregatik sortu dute Hamaika Esku izeneko proiektua.

Cristina Uriarte sailburuak jakinarazi duenez, Erkidegoaren emaitza orokorrak onak dira: lehen aldiz, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak gainditu egin dute azterketako batez bestekoa, probako hiru adarretan –irakurketa, matematika eta zientzia arloetan–.

hizpide

Komunikazio gaitasunak hobetzeko ikastaroa

Jendurreko komunikazio-egoerei (ahozkoei zein idatzizkoei, lan alorrekoei zein maila pribatukoei) modu eraginkorrean aurre egiten ikasteko ikastaroa antolatu du Asmoz Fundazioak. Joxerra Garzia Garmendia idazle, kazetari eta EHUko irakasleak emango du formazio-saioa martxoaren 10etik apirilaren 7ra bitartean.

Bi helburu nagusi ditu ikastaroak: batetik, jendurreko komunikazio-egoerei beldurra galtzea; eta bestetik, diskurtsogintzan trebatzea. Praktikan oinarritutako metodologia du ikastaroak; Internet bidezko 15 ikastordu eta tailer praktikoak (16 ordu) ditu. Saio praktiko horiek martxoaren 14an, 21ean, 18an eta apirilaren 4an izango dira, 16:00etatik 20:00etara, Donostian.

Ikastaroaren informazio guztia ondorengo helbidean aurki daiteke:

<http://www.komunikazioa.asmoz.org>



Sindikatuak grebara deitu dute berriro Kristau Eskolan

Negoiazioak ez aurrera ez atzera daudelako protestara joko dute berriz ere martxo amaieran Kristau Eskolako eta IZEA elkarteko ikastetxeek. ELA, CC00, EILAS eta UGTk egin dute deialdia; LABek ez du bat egin, ez baitago ados gainerako sindikatuek hartu duten ildoarekin. Auziaren muinean eskolek langileei zor dieten dirua dago. Protestara deitu duten sindikatuen eskari nagusia da zorra kitatzea ikastetxeek, eta langileei zor dieten dirua ordaintzea. LABek uste du, ordea, "konponbide integrala" ezinbesteko dela.

27. monografikoa:

"Herri hezitzailea, eskola herritarra" salgai



2013ko maiatzean Donostian egindako jardunaldien edukia jasota, eta beste hainbat ekarpen gehituta, 27. liburu-monografikoa argitaratu du Hik Hasik "**Herri hezitzailea, eskola herritarra**" izenburupean.

Heziketa proposamenak ugartzen ari diren honetan, erreferentziazko materiala bilakatzen ari den liburu horretan bi zehaztasun egin behar dira: alde batetik, Alfredo Hoyuelosen eta Txusma Azkonaren idatzien argazkiak Iruñeko *Hegoalde* Haur Eskolakoak dira; eta, bestetik, Nerea Agirrereren idatzia *Heldu* ikerketa talde osoaren izenean egina dago.

izango da

Osasunaren eta hezkuntzaren inguruko biltzarra Kuban



Apirilaren 7tik 10era osasuna sustatzen duten eskolen lehenengo nazioarteko biltzarra egingo da-

Kubako Habanan. Hiru helburu nagusi ditu biltzarrak: hainbat ikastetxetako esperientzia partekatzea, haurtzarotik bizimodu osasuntsuagoa egiteko eskolan erabil daitezkeen estategiak proposatzea, eta zenbait ikastetxe, elkarte eta erakunderen artean elkarlanerako bideak aztertzea.

Informazio gehiago eskura daiteke ondoko helbidean:

<http://www.escuelaspromotorasaludcuba.com>

Bidaia pedagogikoa Reggio Emiliara

Apirilaren hirugarren asterako bidaia pedagogikoa antolatu du DIIP taldeak Italiako Reggio Emiliara. Eskoletarako bisitak apirilaren 14an, 15ean eta 16an izango dira. Helburua da haurraren kulturari oinarritzen den hango proiektu pedagogikoa bertatik-bertara ezagutzea.



Informazio gehiago: <http://www.diip.es/viaje-a-reggio-emilia.html>

Montessori metodologian formazio-saioa

Irakasleek Maria Montessoriren pedagogiaren inguruko zenbait ezagutza praktiko eskura ditzaten formazio-saioa antolatu du Montessori Canelak Laskurain Pamplonarekin elkarlanean. Irakasleek metodologia horretatik interesatzen zaiena hartzea eta euren errealitate pedagogikoan txertatu ahal izatea du xede.

Martxoaren 22an hasi eta ekainera bitartean iraungo du ikastaroak. Montessori metodologiaren oinarri zientifikoen berri emateaz gain, giro prestatuen, hizkuntzaren nahiz psikoaritmetikaren inguruan izango da formazioa.

Informazio gehiago nahi izanez gero, www.centrolaskurain.com helbidera jo daiteke.

Zientzien inguruko jardunaldi pedagogikoa

XXI. jardunaldi pedagogikoak egingo ditu Ikastolen Elkarteak martxoan. Aurtengoan zientzien inguruko saioa antolatu dute Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetako irakasleei zuzenduta. “Zientziak ikasi eta irakatsi zertarako?” izenburupean, galdera berri erantzuten saiatuko dira martxoaren 10etik 13ra artean.

“Argien mende berri baten atarian ote?” izenburupean Juan Ignazio Perez Iglesiasek martxoaren 10ean, 19:00etan, Donostiako Koldo Mitxelena emango duen hitzaldiarekin irekiko da saioa. Martxoaren 12an eta 13an berriz, zientziaren pedagogiaren inguruko adituak entzuteaz gain, Euskal Herriko nahiz kanpoko esperientziak ezagutu ahaliko dira egun osoan zehar Gasteizko Europa Jauregian egingo diren saioetan.

Informazio gehiago www.ikastola.net webgunean aurki daiteke.



GAIA

Herri hobea lortzeko

Eskolan nahiz kalean, haurrak erdigunean





Umeen eskolaz eta etxeaz kanpoko bizimodua parte hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra izan dadin, komunitateko hainbat eremutan baliagarri izan daitekeen egitasmoa prestatu dute zenbait elkarte, ikertegi eta gizarte-eragilek; horien artean da Hik Hasi. Herri eta ingurune hobe bat lortzeko xedearekin, haurren kolektiboa erdigunean jartzen duen planteamendu politiko eta pedagogikoa da. Aniztasuna, inklusibitatea eta berdintasuna ditu oinarri.

G

Komunitatera begirako proposamena

Umeen aisialdi parte hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen izeneko oinarrizko dokumentua ondu du hainbat alorre-tako zenbait elkarte eta eragilek osatzen duten “Herri Hezitzailea, Eskola Herritarra” lan-taldeak. Hik Hasi pedagogia ekimenaz gain, lan-talde horren barnean daude Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdielkartera, Iriren Lagunak Kluba, Lizarrako eta Iruñeko udal haur eskolen taldea, Oarsoaldeako Garapen Agentzia, Lanki (Huhezi, MU) eta Parte Hartuz (EHU) ikertegiak eta Sorguneak iker-tergia (Huhezi, MU).

2012ko neguan hasita, urtebete inguruko epean osatu dute dokumentua. Herri, auzo, elkarte, ludoteka, aisia gune, hezkuntza gune formal eta ez-formal, guraso talde, bestelako talde, udal edo hainbat gune eta ekimenetan baliagarri izan nahi duen egitasmoa aurkezten da bertan.

Helburuak berriz, hauek dira: jolas ikaste eta garatze tresna berariazkoa duen haurren kultura aitortu, eta hori oinarri hartuta, haurrei benetako parte-hartze eta erabakitze ahalmena ematea; eurek diseinatutako aisia hezitzaile euskaldunaren bitartez euskararen erabilera sustatzea; eta hurbileko gune urbanistiko, ekimen eta pertsonen arteko harremanak hobetzea eta komunitate sarea indartzea, beti ere, estetikaren lanketari estu atxikita.

Behin oinarrizko dokumentua osatuta, hurrengo urratsa txosten hori euskararen, aisialdiaren edota parte-hartzearen munduko nahiz bestelako gizarte-eragileekin zein tokian tokiko erakundeetako ordezkariekin partekatzea eta haien ekarpenak jasotzea izango da. Bakoitza bere esparrutik abiatuta, haurrak eta gaztetxo-

ak erdigunean jarriz eta behetik gora, lekuan lekuko egitasmoak martxan jarri ahal izateko zorua ezarri nahi da hala. *Umeen aisialdi parte hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen* oinarrizko dokumentuarekin beraz, planteamendu politiko eta pedagogiko baterako zimentu teoriko-praktikoak ezartzen dira. Etorkizunean, tokian tokiko proiektuak martxan jartzeko proposamen zehatzagoak eta praktikoagoak egingo dituela aurreikusten du lan-taldeak.

Egitasmoa hastapenetan badago ere, azken urteetan bizitzako zenbait alorretan gertatutako eboluziotik eratorritako proiektua da. Hik Hasi-tik begiratuta, haurren heziketari dagokionez, komunitatean, kalean edota herrian egon daitekeen hutsunea betetzera dator egitasmoa: “Hezkuntzarako abiapuntua familia da, horren ondotik eskolatzea dator, eta horrekin batera baita heziketarako gune sozialak ere, hau da, kalea, herria eta bertako komunitatea, instituzioekin loturan. Hiru esparru horiek osatzen dute haurren bizitza eta guztietan hezten dira umeak. Beraz, guztiek harrereana izan behar lukete elkarrekin eta guztietan saiatu behar genuke baliario hezitzaileak sustatzen”, dio Joxe Mari Auzmendi Hik Hasi-ren koordinatzaileak.

Izan ere, orain dela 19 urte sortu zenetik, Hik Hasi-ren helburua, euskaratik abiatuta eta euskaraz, hezkuntzaren alorrean egon zitezkeen edota dauden hutsuneak betetzea izan da. Familia eta eskola, bi eremu oso garrantzitsu dira haurarentzat, baina Auzmendiren esanetan, maila berean izan daiteke garrantzitsu, kalea, auzoa, herria edota komunitatea ere. “Alor horretan, beste hainbat el-

Herri hobearen alde

karte eta eragile ere lanean ari zirela ikusten genuen, eta ohartu ginen bakoitza geure eremuan bagenbiltzan ere, hainbat puntutan bat gentozela, hala nola, euskara izatea lanerako tresna eta bide, balio hezitzaileak sustatzea, haur nahiz gazteen mundua izatea erdigunean eta eskolan nahiz kalean haurren parte-hartzea izatea bitarteko”.

Orain dela urtebete pasatxo, lanerako gune komun bat sortu eta dozena bat lagun elkartzen hasi ziren. “Herri hezitzailea, eskola herritarra” lantaldea sortu zen hala. Partaideak nor bere eremukoak dira, batzuk unibertsitatekoak, bestetzuk hezkuntzan ari direnak eta hezkuntzaren gainean aditu direnak, edota aisia ez-formalean urte luzeetan ari direnak, parte-hartze esparrukoak, udal teknikariak eta haurrentzako kultur eskaintzatik datozenak. Batzuk ideien mailan eta bestetzuk praktikan.

Lan-taldearen hainbat ekimen

Bilerekin hasi eta berehala Francesco Tonucci pedagogo italiarrarekin, haren “Haurren hiria” kontzeptuarekin eta eskolaren inguruan duen ikuspegi pedagogikoarekin egin zuen topo taldeak. Hala, batetik autore horren *Haurren Hiria* liburua euskarara itzultzea erabaki zuten, eta bestetik, “Herri hezitzailea, eskola herritarra” jardunaldiak antolatzea hezitzaileei, erakunde publikoetako ordezkariari nahiz bestelako hainbat gizarte eragileri zuzenduta.

Hurrengo urratsa berriz, *Umeen aisialdi parte hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen* izeneko oinarritzko dokumentua osatzea eta berau gizarteratzen hastea izan da. Horretarako, “Herri Hezitzailea, Eskola Herritarra” lantaldeko kideak Euskal Herrian hezkuntzaren, euskararen, aisialdiaren

edota parte-hartzearen alorrean lanean diharduten hainbat talderekin elkartu ziren Hernanin otsailaren 13 goizean, eta beste zenbait udal ordezkariarekin arratsaldean.

“Planteamendu politiko bat egitera gatoz”, halaxe azaldu zuen aurkezpenaren sarreran Txatxilipurdiko koordinatzaile Eneko Barberenak. Izan ere, haurren kolektiboa erdigunean jartzea dute xede, hau da, esku-bide-gabetua den kolektibo bati aho-tsa ematea, helburu “noble” bat lortzeko: “herri hobe bat izatea”.

Jarraian berriz, Lorea Agirre Sor-guneak ikertegiko (Huhezi, MU) kideak eta dokumentuaren erredakzio lanen egileak hartu zuen hitza txostenaren oinarritzko ideien berri emateko. Ezeren aurretik, *Umeen aisialdi parte hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen* oinarritzko dokumentua, azalean dioten moduan, txosten irekia dela adierazi zuen, eta beraz, atek irekita dituztela interesgarri izan daitezkeen ekarpenetara.

Agirrek esplikatu bezala, oinarritzko dokumentua hainbat alorretatik jorratu den arren, diskurtso nagusian inklusibitatea aniztasunetik nola landu landu dute: “Alegia, aniztasuna, inklusibitatea eta berdintasuna elementuak, gure diskurtsoan, alorbatean eta bestean txertatu ditugu, eta aldi berean, saiatu gara hiru elementu horiek hainbat adarretatik ikertzen”.

Inklusibitatea aniztasunetik lantzea da beraz xedea. Euskaratik nola landu hori? Eta balio hezitzaileetatik? Eta ume eta gazteen eremutik? Eta herri-gintzatik? Galdera horiei erantzunak ematen ahalegintzen da txostena eta han jasotakoa azaldu zuen Agirrek saioan.



Oinarrizko dokumentuaren nondik norakoak

“Herri Hezitzailea, Eskola Herritarra” lan-taldean dozena lagun inguru aritu dira *Umeen aisialdi parte hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen* izeneko oinarrizko dokumentua prestatzen. Hamabi horiek, nor bere eremukoak, bost kontzepturen inguruan batu ziren: euskara eta euskal kultura, haurtzaroaren kultura, haur eta gaztetxo-en aisia, balio hezitzaileak eta partaidetza.

1. Euskara eta euskal kultura: zer da euskararen eta kulturaren biziberritzea?

Nola ulertzen da inklusibitatearen erronka euskaratik? Galdera horri erantzuten dio oinarrizko dokumentuak. Bertan ageri denez, euskarara biltzeak ez du eskatzen beste hizkuntzak galtzea, kontrakoa baizik, hizkuntza txikiaren alde egiten den oro hizkuntza guztien aldekoa baita: “Euskaldun izateko faktore bakarra, gure iritzi, euskara bera da, euskardun izatea alegia. Beraz, azpimarra genezake euskaldun izatea erabat inklusiboa dela gure haur eta gaztetxoengan. Bestetik, autoestimu ariketa baten aurrean gaude. Zergatik nahi dugu ahalik eta jende gehien bildu dadin euskararen berreskurapenera edo edozein proiektura? Guretzako ona dena partekatu nahi dugulako anitza den jendearekin, edozein dela



ere bere arraza, jaiotza-lekua eta ideologia”.

Txostenaren arabera, euskara berez balio bat da bere baitan edo izan liteke, balio hezitzaile bat, inklusiboa eta irekia delako; euskara berak ekar lezakeelako komunitate justuago, irekiago eta parte-hartzaileago bat. Areago, gaineratzen du euskararen biziberritzeak bide hori urratu beharra duela, bere menderakuntza ez duelako garaituko menderatuta dauden beste eremu guztiekin bat egiten ez badu. Gainera, oinarrizko dokumentuak dioen moduan, euskarak taldea behar du, hiztunak beste hiztunak legez, eta harreman horrek buruz-burukoa behar du izan, erreala birtuala baino gehiago.

Bestalde, *Umeen aisialdi parte*

hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen izeneko oinarrizko dokumentuak jasotzen duenez, euskaraz bizitzeko nahia birsortzea egiteko garrantzitsua du euskal kulturak. Eta kulturaren transmisioa beharrezkoa da eremu guztietan, eta bereziki aisian, aisialdiak aukera aparta eskaintzen baitu umezarotik gaztarorako jauzia giro kulturazalean eta euskaltzalean egiteko.

Dokumentuak dioen moduan, euskararen eta aisiaren lotura garrantzitsua da, hizkuntzaren erabilera derrigortasunarekin lotu ez dadin, eskolan, sarritan, gertatzen denaren kontrara. “Neurri batean, hala ere, eskolaren derrigortasun hori eskola dagoen errealitate soziolinguistikoa dago. Eskolak egin behar du herriak

Herri hobearen alde

egiten ez duena”. Horrek birformula- zio bat eskatzen du aisia, eskola, eus- kara, plazera eta kulturaren transmi- sioak osatzen duten pentagonoan, txostenean ageri den legez: batetik, eskola ezin da ulertu auzo edo herritik kanpo eta aisialditik kanpo dagoen eremu itxi bat legez, ezta herritarren- gandik urruti ere. Eskola herrira zaba- lik egon behar da (baita fisikoki ere) eta herriko eragile izan behar du aldi berean beste eragileekin batera; bes- talde, aisia ere eskolan sartu behar da, aisia bera irakaskuntza/ikaskuntza prozesu bat izan daitekeelako, eta ikaskuntza prozesua aisiatik, plazere- tik eta parte-hartzetik igarotzea onu- ragarria izan daitekeelako bai irakas- kuntza formalean, bai haur eta gazte- txoen heziketa zibikoan. Eta txoste- nak dioen moduan, hor hartzen du zentzua hizkuntzaren arnasmune iza- teak, kulturaren transmisioak eta jola- saren eta gozamenaren garrantziak, bai eskolan eta bai aisialdian.

2. Haurtzaroaren kultura eta jolasaren ezinbestekotasuna

Dokumentuak jasotzen duen eran, haurtzaroaren kulturaz hitz egi- teak ekartzen du aitortzea haurrek euren modu etiko, estetiko eta poeti- koa dutela mundua ikusteko eta eu- ren bizitzari eta existentziari zentzua ematen dioten hipotesiak, teoriak eta metaforak eraikitzeke gai direla.

Loris Malaguzziren ideietan oina- rriturik horrela laburbiltzen ditu txos- tenak haurren gaitasun eta ahalme- nak: ko-konstrukzionista, interakzio- nista, ekologikoa (harreman sozio- kultural anizkunen bidez eraikitzen dena), genetikoa (ahalmen handiko gizakia da haurra, baina, aldi berean, haren heltze erritmoa eta aurretik iga- rri ezinezko garapena errespetatu be- har dira, estimulazio goiztiarreko pro- gramekin behartu gabe), konplexua, baikorra, zalantzazkoa; bere bilakae- raren bidea eratzeko autonomia, eki- mena eta erantzukizuna dituen haur

bat da; solidarioa, aktiboa, parte- har- tzailea, hizkuntzen arteko osagarrita- sun dialogikoan ibiltzen dena, bere bizitzari zentzua emateko eta gizate- rriari itxaropena ekartzeko gai dena.

Dokumentuaren hitzak errepika- tuz, ume eta gaztetxoek jardura na- gusia jolastea da, eta hori da haurtza- roaren kulturaren funtsa: “Mugarik ez duen jakin-minarekin, dakienarekin eta ez dakienarekin, munduaren konplexutasunaren aurrean jartzen da umea. Eta jakin nahi duenarekin. Askatasun osoa du jolasean, egin ezin duena asmatu egingo duelako. Jolas librea eta espontaneo helduen iker- keta zientifikoaren, arte sorkuntzaren edo mistikaren pareko da. Jolastea, ‘denbora galtzea da’, eta denbora gal- duz bihurtzen gara heldu. Jolastea denboran galtzea da eta munduare- kin topatzea. Jolastea plazera da, eta horregatik jolasean dabilen umea ja- teaz ere ahaztu egiten da”.

Tonucciren ideiak gogoratu,



txostenak dio ez dela egia umeak ez dakiela ezer, orri zuri bat dela, baizik eta justu kontrakoa. Haren arabera, umearen garapenean garai funtsezkoena jaio eta eskolara joan aurrekoa da. Hor izaten ditu irakaspen handienak, ondorengo guztiaren oinarri izango direnak. Izan ere, umea eskolara ez doa sakelak hutsik dituela, bete-beteta baizik, eta dakarren hori erakutsi edo irakatsi dezan da eskolaren egitekoa. Eta umeak nola daki dakiena? Jolasaren bidez.

3. Zergatik aisia hezitzailea?

“Herri Hezitzailea Eskola Herritarra” lan-taldeari ez dio edozein aisia moduk balio. Haren arabera, haur eta gaztetxoentzako aisiak, eta berdin helduentzakoak ere, balio hezitzaile batzuk ekarri behar ditu berekin, bai edukietan eta baita egiteko moduetan ere. Aniztasunaren errespetua eta aukera berdintasuna dira horietako bi, eta hirugarrena bestearen onarpena, hots, inklusibitatea: “Azken finean xedea pertsona autonomo eta askeak bilakatzea da; eta tokian tokiko behar, nahi eta asmoei erantzutea, komunitate hurbila hobetzea, herrigintza praktikatzeko, eta, ezinbestez, euskaldun eta euskal hiztun komunitateko kide izatea”.

Dokumentuak adierazten duenez, aisialdiak hezitzailea izateko beharrezkoa du jarduera garatzen den lekuaren errealitatearen beharrei erantzutea. Tokian tokikoa izatea. Bertakoek eta bertarako diseinatua, ez eredu estandar baten hamaikagarren aplikazioa.

Aisiaz gozatzeko, ezinbestean, aisialdia edo denbora libre behar da.

Ondoren, denbora libre horretaz egiten den erabilerak askatasuna –norberak nahi duelako egiten du edo aukeratu du– eta gozamina –nahiz eta sarri esfortzua ere suposatzen duen, dibertimendu eta plazer iturri delako– aurreikusi behar ditu. “Edukia adina garrantzitsu da egiteko modua. Biak behar dute hezitzaile izan. Eta hemen txertatzen zaigu, ondo baino hobeto haur eta gaztetxoentzako parte-hartzea erdigunean jarri beharra”.

4. Zergatik haur eta gaztetxoentzako parte-hartzea erdigunean?

Haur eta gaztetxoak protagonista izango direla dio dokumentuak, haur eta gaztetxoei zuzenduriko proiektu bat izango dela, eta horrek ez dituela baztertzen ez helduak ez gazteak proiektu horien gozamenetik eta kontsumotik, eta are gutxiago proiektu horien antolaketatik. “Ezin da ezer inorentzat egin, inor hori kontuan hartzen ez bada. Baina harago joan beharrean dago. Inor kontuan hartzea ez da nahikoa, inork antolatu behar du bere burua, taldean, eta komunitatearen onurari begira. Ezker eskuin eta behetik gora eraikitako prozesua behar du izan”.

Txostenaren arabera, haur eta gaztetxoentzako parte-hartzeak ezin du erretorikoa izan, erreala eta zintotasunez onartutakoa baizik, haur eta gaztetxoak ez baitira egitasmo horren kontsumitzaile huts. Eta ildo horretan Francesco Tonucciren hitz batzuk azpimarratzen ditu dokumentuak: “Ekintzarik garrantzitsuena haur eta gaztetxoei protagonistaren papera ematea da. Hitz ematea, euren iritzia adierazten uztea, eta helduok euren



hitzak entzuteko jarrera irekia izatea, eurek diotena ulertzeko gogoia izatea eta eurek diotena kontuan hartzeko borondatea izatea. Jakina, haur eta gaztetxoentzako proposatzen dugun honek hiritar guztientzat balio du, hirugarren adinekoentzat, gutxiagotzat, gazteentzat, beste komunitateetako jendeentzat. Berritoki ere, haur eta gaztetxoak erakusten digu bidea egiten eta guztiontzat berme bat da haur eta gaztetxoentzako kontuan hartzea”.

5. Zergatik parte-hartzailea?

Umeen aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen izeneko oinarritzko dokumentuaren arabera, parte-hartzea haur eta gaztetxoak antolatzeko tresna baino ez da funtsean, Euskal Herrian berezko izan den zerbait, auzolanaren bitartez bereziki, baina baita beste antolamendu batzuen bidez ere.

Partaidetza ekimen erreal batek bi subjektuen elkarlana eskatzen duela dio txostenak, herrigintzako eragileena batetik, eta herri erakundeena bestetik: “Nolabait erakunde publikoek

Herri hobearen alde

ere herrigintza behar dute izan, eta herritarrak ere administrazioaren parte. Azken axioma hau praktikan jartzearekin etorriko da benetako partaidetza eta benetako herrigintza”.

Dokumentuan definitzen denez, partaidetza ezin da izan aurrez hartutako erabaki politiko bat legitimizatzeko tresna, edota gatazkak ekiditeko azken orduko prozedura, ezta marketin politikorako lanabesa ere. Borondate demokratizatzailea behar du izan, lan egiteko moduak aldatu eta antolaketa eredu berri baten oinarrietako bat. Eta horretarako, aniztasuna kontuan hartuz, herritarren sektore guztietara hurbiltzea ezinbestekoa dela dio.

Euskal Herriko jendeak badu hori dena izendatzeko berezko modu bat: auzolana. Auzolan tradizionalak badiu hainbat ezaugarri, baina auzola-

naren filosofia hori egituraz eta helburu berriz gaurkotu liteke. Gaurko begiz, sei oinarri jartzen dizkio dokumentuak auzolanari: herrigintza helburu duen ekimena izatea, jendearen funtzio soziala indartzea, auzolankidetzat buru-belarri dabilena eta ekin-tza xume batean parte hartzen duena hartzea, erabakiak adostea eta zereginak banatzea, ikasketa prozesu eraldatzaile bat izatea, eta horretarako egitura eta lan modua definitzea: herri-batzar ireki eta inklusiboak, eta parte-hartze errealerako moduak.

Aurrera begira zer?

Oinarrizko dokumentu honek dioena gizarteratu ostean, hainbat talde, elkarte eta gizarte-eragilek egingdako ekarpenekin behin betiko txostena osatuko da. Era berean, lan-taldea bera ere irekita dago parte hartu nahi duen edonorentzat.

Hortik aurrera, dokumentu hone-tan oinarrituta egitasmoren bat martxan jarri nahi den esparru bakoitzeko proposamen zehatzak landuko dira eta zenbait irizpide emango dira, horiek jarraitu nahi dituenarentzat.



Aniztasuna eta berdintasuna ezkonduz

Dokumentuan ageri denez, bai euskararen biziberritzea, bai haur eta gaztetxoen aisia hezitzailea, bai parte-hartzea eta bai herri edo komunitategintza berdintasun planotik abiatuta baino ezin da egin. Hona hemen txostenean jasotzen diren zenbait ideia:

- Guztien ahalmen eta gaitasunek balio berdina dute.
- Guztien arteko aukera berdintasuna bermatu behar da.
- Berdintasuna genero hezkidetzatik zuzen-zuzen pasa behar da.

- Berdintasuna egongo bada parte hartzea guztiei ireki behar zaie, eta horretarako berariazko modu eta metodologiak asmatu eta eratu behar dira.

- Berdintasuna erreala izango bada ahulena jarri behar da erdigunean: umea eta euskara, kasu honetan.

- Sormen gaitasunak berdintzen ditu pertsonak.

- Herrigintza berdintasunezko planoan jokatu bada, herri edo auzo taldeetako funtzionamendua parte-hartze errealetik pasa behar da.

- Herrigintza berdintasunezko planoan jokatu bada, gobernantza modu berri batera ekarri behar da administrazio publikoen funtzionamendua eta honek herritar eta kolektiboekin duen harreman modua.

- Auzolan berritu bat berreskuratu behar da.

- Berdintasunak komunitate zentzua bermatzen du, herritarrak, elkar-teak, eskolak, udalak eta ekimenak elkarrekin lanean jartzeko aukera ematen duelako.

Funtsezko zazpi ezaugarri

“Herri hezitzailea, eskola herritarra” lan-taldeak zazpi ezaugarri funtsezko aitortzen dizkie euren egitasmoei, elkarren artean desberdinak izanda ere, praktikara eramatera koan:

1. Genero berdintasuna: ekimen guztien ardatz nagusienetako bat da. Parte-hartze paritarioa du xede, genero ikuspegitik, hainbat gizon eta hainbat emakume, berdintasun numerikoan. Baina ez hori bakarrik edota ez hori ezinbestez, baita genero rolek sortzen dituzten funtzionamendu desberdin eta desberdintzaileak kontuan izatea ere, horiei buelta eman eta benetako parte-hartze formulak topatzeko.

2. Berdintasuna oro har: aukera berdintasuna eremu guztietara zabaltzea esan nahi du. Emakume, gi-

zon, ume, gaztetxo, gazte, edadetu, langile, langabe, paperdun, papergabe, gaixo, osasuntsu, bazterreko, erdiko... izateko eta egoteko modu guztiak berdintasunaren eta errespetuaren etiketatik pasatzea dute oinarri.

3. Laborategi izaera: proiektuaren ezaugarri izango da, hala beharrez, hein handi batean laborategi izatearena. Dokumentuaren arabera, egitasmo bakoitza egitasmo berri eta bakar izan behar duelako, lekuan lekuko herri, komunitate edo taldeari berriaz begirakoa. Zapaltzen duen lurrera eta jendera egokitua, areago jendeak erabakiko du zer nolakoa izango den.

4. Behetik gorako ekimenak: herri ekimenetik abiatuta eta herri ekimenean oinarritutako egitasmoa

izatea.

5. Modu horizontalean: taldeen bitartez parte hartzea bideratuz eta lan banaketa eta erabaki hartzeak praktika demokratikoetan eta berdintasunezkoetan oinarrituz, eraikitzen joan beharko duten egitasmoak izatea.

6. Zehar lerrotasuna: euskara, kultura, ongizatea, haurtzarora, gaztedia, gurasoak, helduak, aisia, hezkuntza, natura, herrigintza, saretzea, dinamizatzea... eta beste eremu eta kontzeptu batzuk zeharkatzen dituen egitasmoa izatea, eta horrenbestez eremu horietako guztietako jendeen topaleku izatea.

7. Ekimenen autonomia: egitasmoak, lekuan lekukoak izango dira, gogo, indar, behar, funtzio eta baliabideen arabera.

Beste ekimenekin koordinazioan

Umeen aisialdi parte hartzailea, euskalduna, bezitzailea eta herritarra garatzen proiektuaren barneko egitasmoak tokian tokiko beste ekimenekin koordinatuak izango dira eta saretzeko bokazioa izango dute. Horren baitan hiru printzipio hartzen ditu kontuan “Herri hezitzailea, eskola herritarra” lan-taldeak:

1. Dagoena ez ordezkatzearen printzipioa: herrietan egon badagoen dinamika, ekimen, talde edo programarik

ez da ordezkaturiko. Ez da berririk sortuko.

2. Ez dagoena sortzeko aukeraren printzipioa: herrian ekimen edo programa jakin bat ez balego, eta batzordeak hala deliberatuz gero, berria sortu ahal izango da.

3. Herrietako bestelako prozesuak kontuan hartzea eta ahal dela bateragarri eta osagarri egitea: herrian dauden beste prozesu eta egitasmoekin uztartzeko bokazioa izatea.



Rafael Bisquerra



ELKARRIZKETA

Psikopedagogo

“Gaitasun emozionalak lantzea funtsezkoa izango da gizarteko behar sozial berriei erantzuteko”

Gaitasun emozionalak garatzen ikastea eta pertsona zoriontsuagoak sortzea dira hezkuntza emozionalaren bi helburu nagusiak. Gai horretan aditua da Rafael Bisquerra, Psikopedagogian katedraduna (Arta, Herrialde Katalanak, 1949), eta Bilbon izan zen urtarrilean, Erkide- Irakaskuntzak hezkuntzaren geroaz antolatutako saioetan. Ikasleak gaitasun emozionaletan trebatzea funtsezkoa dela uste du XXI. mendeko erronka berriei aurre egiteko, eta horretarako curriculum akademiko osoan hezkuntza emozionala garatzeko bitartekoak jarri beharko liritekeela dio, "gaitasun emozionalak lantzeko bizitza osoko entrenamendua behar baita".



Zergatik da beharrezkoa hezkuntza emozionala? Zein arrazoi izan ditzake ikastetxe batek edo erakunde batek horretan inbertitzeko?

Nahikoa dugu hainbat adierazle kontuan izatea, hezkuntza emozionala oso beharrezkoa dela argudiatzeko. Adibidez, irakaskuntza da antsietatearen edota estresaren adierazle altuenak dituen lanbideetako bat. Horrelako adierazleek ulertarazten dute azken hamar urtean antsiolitikoek kontsumoa bikoiztu izana. Horrez gain, datuek diote biztanleen % 8-10ek antsietatea edo estresa duela. Haserrearekin lotutako patologia emozionalak aipatu ditugu, baina bada beste emozio bat ere, tristura, patologia eragiten duena: depresioaz ari naiz. Azken hamar urtean, bikoiztu egin da antidepresiboek kontsumoa. Ikerketek diote biztanleen % 15ek depresioa duela, edo depresiorako joera, eta, XXI. mendean, biztanleen % 25ek izan dezakeela, hau da, lautik batek. Gainera, ikerlanek diote mende honetako arazorik larrienetako bat indarkeria izango dela. Beraz, iruditzen zaizkizun arazo horiei aurre egiteko ahalegina egitea merezi duela, eta uste dut emozioen kudeaketa dela horretarako modurik onena.

Oraindik behar bezala kontuan hartu gabeko premia sozialei hobeto erantzutea da, beraz, hezkuntza emozionalaren helburu nagusia. Nola lortu daiteke hori?

Nire ustez, lehendabiziko egitekoa hezkuntza emozionalaren beharraz jabetzea da. Hasteko, sentsibilizazio-lan handia egin behar da, baina,

hezkuntza emozionalerako programak ikastetxeetan sartzeari lortuz gero, asko aurreratuko genukeela iruditzen zaizkizun. Gaitasun emozionalak garatzen ikastea funtsezkoa izango da, gizartean ditugun zenbait behar sozial berriari erantzuteko.

Hezkuntza emozionalaren zein beste erronka azpimarratuko zenituzke?

Hezkuntza emozionalaren helburua pertsonen ongizatea da, pertsona zoriontsuagoak egiten saiatzea. Askok hitz egin daitezke ongizateari buruz. Normalean, emozioetatik abiatuta hartzen ditugu erabaki gehienak, guztiak ez esatearren. Eta, gehienez, erabaki horiek gure ongizatea areagotzera bideratzen dira; izan ere, horixe izan behar dute xede.

Hezkuntza-jardunetik abiatuta, nola landu daitezke gaitasun emozionalak?

Gaitasun emozionalak lantzeko, lehenik, kontzientzia emozionala izan behar dugu. Norberaren emozioen kontzientzia hartzea esan nahi du horrek. Nola sentitzen naiz? Nola sentitzen da bestea? Zergatik sentitzen naiz horrela? Nola sentitzea gustatuko litzaidake? Eta zer egin behar dut sentitu nahiko nukeen bezala sentitzeko? Kontzientzia emozionalaren bidez konturatzen gara uneoro estimuluak jasotzen ari garela eta estimulu horiek gure emozioak pizten dituztela; eta ekintza edo jarrera mota bat eragiten dutela guregan, batzuetan positiboa eta besteetan negatiboa. Kontuan izan behar dugu, dena den, gertaera berberaren aurrean pertsona bakoitza, une bakoitzean, era batera edo bestera senti daitezkeela.

Era berean, emozio jakin batetik abiatuta erlazionatzen gara jendearekin ere. Horren jakitun izatea eta sentitzen ditugun emozioek besteekin dudak harremana baldintza dezaketela konturatzea da kontzientzia emozionala hartzeko modua. Eta, emozioen kudeaketarako bidean, norberaren emozioez jabetzea da erregulazio emozionalaren aurreko urratsa.

Rafael Bisquerra

E

“ Zer emozioekin busti nahi dugun eta zer emozio saihestu nahi ditugun erabakitzen lagundu behar liguke autonomia emozionalak

”

“ Curriculum akademiko osoan eta irakasgai guztietan hezkuntza emozionala garatzeko modua egitea litzateke idealena

”

Gaur egun hurrek jasotzen dituzten estimulu guztiak aintzat hartuta, badute baliabiderik emozioen kontzientzia hartzeko eta emozio horiek erregulatzeko?

Kontzentratzeko eta arreta jartzeko zailtasunak ekarri ditu gehiegizko estimulazioak. Asegaitz egin ditu haurrak, eta horrek frustrazioaren kudeaketa zaildu du. Gure garaian, frustrazioa saihestezina zen. Ni Mallorcako langile-familia batekoa naiz. 50eko urteetako, sekulako eskasia eta pobrezia zegoen garaietako. Gogoratzen naiz nola sarritan pastelak zeuden erakusleihu baten aurretik pasatzen ginen eta nola sekulako ilusioarekin begiratzen nion. Beti inbidiaz egoten nintzen, baina ez nuen inoiz pastel haietako bat ere dastatzeko aukerarik izan. Horretara hain geunden ohituta, ezen hori gure eguneroko errealitatearen parte baitzen. Gaur egun, guraso askok inolaz ere ez dute nahi euren seme-alabak frustratzerik. Eta, beraz, hurrek eskatu ere egin gabe, gauzak erosten dizkiete.

Baina, horrez gain, bada beste arazo bat ere: *zapping* mentalitatea, hain zuzen. Burua alde batetik bestera darrabilgu beti. *Twitter* mentalitatea daukagu, deskonexio etengabekoa. Mezuen uneoroko bonbardaketak zu-

zentzen du gure jokabidea; pantailek bideratzen dute gure bizimodua.

Egoera horren aurrean, zein erregulazio-teknika erabil daitezke?

Emozioak erregulatzeko, teknika asko daude, eta zenbait gaitasun lantzen daitezke. Adibidez, konpromiso-kontratu bat egin daiteke irakasleen artean, eskola emateari utzi gabe, asetan behin kontzentrazio-ariketa bat egiteko. Esate baterako, ideia ona izan liteke eskola bost minutuko erlazazio-ariketa batekin hastea. Hasieran kontrakoa uste arren, ikasleen arreta nahiz eskolako errendimendua handitzeko balio lezake horrek.

Kontzientziaren, arretaren eta kontzentrazioaren artean lotura zuzena dagoela konturatu behar dugu. Isilik gauden denboran, nahiz eta kontzentratzen saiatu, askotan beste pentsamendu batzuetara joaten da burua. Hori asimilatzea kostatu egiten zaigu, baina kontuan izan behar dugu ikasleek, batez beste, minutuan behin galdetzen dutela haria eskolan. Beraz, eskola-ordu batean, batez beste, 60 aldiz joaten zaie burua beste zerbaite-tara. Horregatik, eskola amaieran zer ulertu duten galdetzen badiegu, konturatuko gara ikasle batzuk ez direla ezertaz jabetu. Zergatik diot hori? Ba,



hori guztia kontzientzia-, arreta- eta kontzentrazio-ariketen bidez landu daitekeelako. Eta oso garrantzitsua da hiru alor horiek lantzea, gero entzuten ari naizenari arreta jartzeko edo irakurtzen ari naizena ulertzeko.

Kontzientzia, arreta eta kontzentrazioa lantzeaz gain, emozionalki autonomia izatearen garrantzia azpimarratzen duzu. Zer egin dezake eskolak haurra txikitatik emozionalki autonomia izan dadin?

Emozionalki autonomia izateak esan nahi du pertsona gai dela une zehatz batean behar dituen emozioak sortzeko. Pertsonok, gure bizitzako lehen hamar urteetan, gurasoen menpeko gara ia; pentsamenduaren erabateko dependentzia gertatzen da hor. Gero, familiaren menpeko izate-tik lagunen menpeko izatera igarotzen gara. Nerabeak bere askatasuna alde batera utzi ohi du, eta taldea izan ohi da haren orde z erabakiak hartzen dituen. Eta, horren ondoren, lagun taldetik bikotera igarotzen gara. Badaude lehenik familiaren, ondoren lagunen eta gero bikotearen menpeko izan diren pertsonak.

Zer emozioekin busti nahi dugun eta zer emozio saihestu nahi ditugun erabakitzen lagundu behar ligukeen autonomia emozionalak. Ziurrenik, gehienok ezagutuko ditugu emozionalki toxikoak diren inguruneak.

Adibide bat jar zenezake?

Esate baterako, festa giroan nerabeen lagun talde bat elkartzen denean, oso ohikoa da norbaitek substantziaren bat eramatea. Demagun batek ez duela substantzia hori kontsumitu nahi, baina horretara behartua sentitzen dela taldeak presioa egiten diolako. Une horietan norberak bere kabuz jarduteko duen ahalmena oso garrantzitsua da, eta gaitasun horrek norberaren emozioekin du zerikusia. Izan ere, taldeak nahi duenaren kontra pertsona batek erabakia hartu ahal izateko, autonomia emozionala behar du. Autonomia emozionalak erakusten digu norekin landu ditzake-



gun lotura emozional positiboak, betiere askatasunak ematen digun arduratik abiatuta.

Lehen gaitasun emozional soziala entzuteko gaitasuna dela diozu. Hori ere eskolan landu daiteke?

Gaitasun sozialez hitz egiten dugunean, beste pertsonekin erlazionatzeko gaitasunaz ari gara. Gaitasun horietan lehena entzuteko gaitasuna da, eta eskolan landu daiteke hori. Ikasleei entzuten ez badute denbora galtzen ari direla ikusarazi behar zaie. Ikasgeletan zenbait arau ezartzerakotan, funtsezkoa izan ohi da hizketan ari denarekiko errespetua lortzea. Baina, horretarako, lehen-lehenik, hitz egiten ari denari entzun egin behar zaio, eta horretan ere ez dakigu guztiok. Edonork izan behar du hitz egiteko aukera, eta, hitz egitean, hobe da aurrekoak esan duenari erreferentzia eginez edo haren hitzak laburtuz hastea, argi utziko baitu hala benetan besteak esan duena entzun duela eta arretaz egon dela.

Irakasleon kasuan, berriz, haurrei entzutea garrantzitsua da, baina baita gurasoei entzutea ere. Irakasleok asko hitz egiten dugu, gehiegi, sarritan. Askotan, badirudi hitz egiteagatik ordaintzen digutela.

Landu beharreko zein beste gaitasun sozial nabarmenduko zenituzke?

Oinarrizko beste gaitasun bat agurtzea da, edo irribarre egitea, esker-rak ematea, negoziatzea, arazoak konpontzea, asertibitatea, enpatia, etab.

Nola txerta daitezke hezkuntza emozionaleko programak eskolan?

Hezkuntza emozionalean, programen diseinua, plangintza eta balorazioa egitea da xedea. Programa horiek Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora arte landu behar lirateke, betiere, esparru teoriko batetik abiatuta eta lehenik irakasleak prestatuz. Izan ere, hezkuntza emozionalaren lehen helburuaren publikoa irakasleak dira. Irakasleak prestatuta daudenean eta hainbat material eta baliabide eskurtean izanda, gai izango dira hezkuntza emozionala aplikatzeko. Programen diseinuan, kontuan izan behar da erremintek duten garrantzia. Ikasleengana iritsi aurretik, bigarren helburuaren publikoa familiak dira. Izan ere, hezkuntza emozionaleko programak arrakasta izan dezaten, hirukiaren erpin guztiak izan behar dira go-goan: irakasleak, gurasoak eta ikasleak.

Noiz eta nola eramango dira aurrera programa horiek?

Hezkuntza emozionala hainbat testuingurutan ezar daiteke, bizi-zan zeharreko prozesua baita: hezkuntza

Rafael Bisquerra

E

“Ikasleek euren ekintzen aurrean emozio positiboak biziko dituztela ziurtatu behar dugu. Eta ikasle guztiek aitortpen positiboren bat izan behar dute zerbaitengatik

“Zenbait ezagutza akaso hiruhileko batean bereganatuko ditu ikasleak, baina gaitasun emozionalak ez. Bizitza osoko entrenamendua behar da



formalean, ingurune komunitarioetan, organizazioetan... Hezkuntza-zentro bat organizazio bat da, eta, organizazio den heinean, irakasleak ere gaitasun emozionalak behar ditu bere funtzioa landu ahal izateko. Hezkuntza-inguruneari dagokionez, ahalik eta espaziorik egokienak aurkitu behar dira. Ziurrenik tutoretzako ordua da espazio egoki horietako bat, tutoretzaren helburua pertsonen garapen integrala izan ohi baita, ohiko jakintza-esparru arruntetako edukiak garatzetik harago. Beraz, hezkuntza emozionaleko programa ikastetxean txertatzen hasteko moduetako bat tutoretzako orduen bidezkoa izan daiteke. Tutoretza, orientazioa eta hezkuntza emozionala, funtsean, oso erlazionatutako elementuak dira.

Hezkuntza emozionalaren zeharkakotasunaz hitz egin duzu, baina *desideratum* gisa. Ez da erreal?

Curriculum akademiko osoan eta irakasgai guztietan hezkuntza emozionala garatzeko modua egitea litzateke idealena. Hori da *desideratum*-a; badakigu zaila dela, baina horretara gerturatzen saiatu behar dugu. Eta erdibidea hezkuntza emozionaleko programak hainbat eremu akademikotan txertatzea litzateke, tutoretzetik hasita, hiritartasunerako hezkuntzarekin jarraituz eta gizarte-zientzietan, filosofian, etikan, hizkuntzetan, natura-zientzietan, gorputz-hezkuntzan, matematikan nahiz beste edozein irakasgaietan ere landuz.

Eskola-jardun arrakastatsurako

gakoetako bat irakurketa emozio positiboekin lotzea dela diozu. Azal dezakezu hori?

Derrigorrezko Hezkuntzaren bukaeran ikasleek irakurtzen goza dezaten lortzen badugu, lortu dugu hezkuntza-helburuen % 50. Izan ere, ongizate modu bat bakoitzari gustatzen zaion hori irakurtzea da. Beraz, irakaslearen egitekoa horixe izan daiteke: ikasleak irakurriz zer testuingurutan gozatzen duen ikusi, eta horrelako testuinguruak sortzea. Proposamen zehatz bat egin liteke irakurketa-aren inguruan: irakasle bakoitzak konpromisoa har dezake, ikasleei hilean behin irakurri nahi dutena eskolara eramanarazteko eta eskola-ordua horretan emateko. Izan ere, ikasle bakoitzak bere interesekin konektatu duela adieraziko du horrek batetik, eta, bestetik, irakasleak ikaslearen interesekin konektatu duela. Ikasleek irakurketa emozio positiboekin lotzea lortu behar dugu; irakurketa izan dadila asebetegarri. Oso triste da ikasleek irakurketa gustatzen ez zaien zerbaitekin edo asperdurarekin lotzea. Horrek irakurketa emozio negatiboekin lotzea baitakar, eta kontuan izan behar dugu emozio negatiboek jarrera negatiboak eragiten dituztela.

Hezkuntza emozionaleko programak egoki txertatuz gero, zein onura izan ditzake eskola-jardunean?

Oso informatuta eta modu koherentean eginez gero, gaitasun sozialak nahiz emozionalak hobetzeko bali dezake. Besteenganako jarrera hobetzen da, eta baita eskolarekikoa ere. Gelako giroa hobetzen lagun dezake, eta baita ikasleen errendimendu akademikoa hobetzen ere. Aipatutakoaz gain, jarrera disruptiboak saihesten laguntzen du. Arazoak eta gatazkak ere gutxitu egin ohi dira hezkuntza emozionalaren ondorioz, eta baita indarkeriazko jokaerak nahiz antsietatea eta stres-egoerak ere.

Hala ere, ez da inor ikasita jaiotzen. Emozioak kudeatzen ikasteko ere

entrenamendua beharko da.

Uste dut hutsune handia daukagula hezkuntza emozionalean. Analfabetismo emozional instituzionalizatu batean bizi gara. Garrantzitsua da gaitasunekin inor ez dela jaiotzen esatea, behin eta berriz. Gaitasunak ikasi egiten dira. Adibidez, entzutea gaitasun bat da, baina entzuten ikasi egin behar da. Sarritan, ordea, agintzera eta ikasleei isiltzeko esatera mugatzen gara. Gaitasunak entrenamenduaren bidez garatzen dira. Garatzeak ez du esan nahi goitik behera ezartzea. Bizitza guztiko entrenamendua behar da; urte askoan presente egon behar duen entrenamendua da. Zenbait ezagutza akaso hiruhileko batean bereganatuko ditu ikasleak, baina gaitasun emozionalak ez.

Gaur egun, askotan egozten zaio eskolari ekimena, sormena edota haurraren ikertzeko grina gehiegi frustratzen duela. Zer diozu horren inguruan?

Nik uste dut xehetasunak kontuan izan behar direla, orokortasunek okerreko bidetik eramán gaitzakete-eta. Irakasle eta guraso batzuek, haurrei frustraziorik ez eragitearren, ia dena eginda ematen diete, inolako mugarik gabe. Muturreko joera da hori, eta ez dio batere mesederik egiten haurraren garapen pertsonalari. Beste hezkuntza-ingurune batzuetan, berriz, frustrazioa hain da muturrekoa, ezen norberegantutako babesgabetasuna eragiten baitu. Horrek esan nahi du pertsona horrek sekulako frustrazioa duela eta ez duela pentsatzen saiatzen jarraitzeak merezi duenik. Beraz, dagoen bezala geratzen da, ez aurrera eta ez atzera. Azterketa garaian gerta daitezke horrelakoak, adibidez, behin eta berriz irakasgaiak gainditzeko nahiko puntu ateratzen ez dituzten ikasleen kasuan.

Nola lagun dezake hezkuntza emozionalak ikasgeletako aniztasuna kudeatzen?

Aniztasunaren lanketa gaur egungo hezkuntzaren erronka garrantzi-

tsuenetako bat da, eta, horretan, hezkuntza emozionalak lagun dezake. Lehenik eta behin, aurrean duzun pertsonaren dimentsio emozionala hartu behar da kontuan. Nola sentitzen den pertsona hori bere errealitatearen aurrean. Zenbait ikasleren kasuan, euren egoerarengatik norberegantutako babesgabetasuna izan dezaketela ulertu behar da. Babesgabe sentitzen dira, eta ez dute ezertarako gogorik izaten, uste baitute, egiten dutena egiten dutela ere, ez duela ezertarako balioko. Egoera horretara iritsi bagara, oinarritzko gaitasunak garatzen laguntzen ez duten gizarte-eta hezkuntza-testuinguruak sortu ditugulako da. Adibidez, etengabe suspenditzen ari den pertsona baten egoera. Hori eragotzi egin beharko genuke. Ikasleek euren ekintzen aurrean emozio positiboak biziko dituztela

ziurtatu behar dugu. Eta ikasle guztiek aitorten positiboren bat izan behar dute zerbaitengatik. Batzuen kasuan, gaitasun akademikoengatik izango da; beste batzuetan, harremanetarako duen gaitasunagatik; beste batzuetan, soilik egiten duen ahaleginagatik izango da, edo erakusten duen jarrearengatik.

Hezkuntza emozionalaren beharra sutsuki defendatu duzu. Edukien hezkuntzaren aurretik jarriko zenuke?

Ez nuke bat bestearen aurretik jarriko. Nik uste dut garapen kognitiboa eta garapen emozionala modu paraleloan doazela. Arazoa da ikastetxe eta ikasgela gehienetan baliabideen %99 garapen kognitibora bideratzen dela eta alderdi emozionala ezerezean geratzen dela.





0-3. Hezitzaileen formazioa

Loa, gerturatze piklertarra

“Baldintza egokiak sortuz gero, haurrek beren kasa lokartzen ikas dezakete”

Haurren loari buruz hitz egin zuen Juanjo Quintela psikologoak, 0-3 urte arteko hezitzaileen prestakuntzan 2014ko urte hasieran egindako saioan. Haren esanetan, helduak lasaitasun, konfiantza eta itxaroteko gaitasun nahikoa badu eta uzten bazaie, hau da, bizi-ingurunerako baldintza egokiak sortzen badira, haurrek beren kasa lokartzen ikas dezakete. Baieztapen hori oinarri hartuta, 14 ideia-ardatz azaldu zituen, eta loaren gaiarekiko gerturatze piklertarri heldu zion hala.



Juanjo Quintela eta Bartzelonako Montserrat Miro 0-3 formazioko kideekin hitz egiten.

1. Norberaren buruarenganako konfiantza eta bakarrik egoteko gaitasuna:

Quintelak prestakuntza-saioan adierazi zuenez, bakardadeaz gozatzeko abilezia haurtzaroan hasten da, uzten bazaie, bakarrik egoteko gaitasun ikaragarria eskuratzen baitute haur txikiek. Psikologoak gaineratu zuenez, kanpotik inork eten gabe bakarrik jolasten den umea zoriontsu sentitzen da bestea hor egoteagatik,

baina haren menpekoa ez dela ere sentitzen du. “Bakarrik egoteko eta jolasteko aukera eta mugimendu-askatasun erabatekoa izan duen umeak barne-konfiantza du, gaitasun-sentimendu sakona du, bere arazoak konpontzeko ‘barrura begiratzeko’ eta ‘bere barruan bilatzen’ daki. Loaren gaira eramanda, horrek esan nahi du haurrari utzi egin behar zaiola bere burua lasaitzen ikasten”.

2. Barrukoan fokuratutako haziera

Haur bakoitzari sortzetiko trebetasunak eta talentua erabiltzen lagundu behar zaiola dio Quintelak, eta, loari dagokionez, haurra sehaskan bere kabuz lokartzea esan nahi duela horrek; hau da, esna dagoelarik oheratu ahal izatea, bere bitartekoen bidez lasaitzeko eta lokartzeko aukera eskainiz: “Gurasoei eta hezitzaileei zaila egin ahal zaie hori, gehienetan nega-

rra dagoelako tartean. Haur batzuek errazago lasaitzen dute euren burua beste batzuek baino, baina denek izan beharko lukete sehaskan esna jarri eta egoera beren kasa konpontzeko aukera”.

3. Aurreikusteko moduko bizitza bat

Haurrak bere kasa lo hartzen ikas dezan, aurreikusteko aukerak laguntzen du, Quintelaren ustez. Haren hitzetan, haur txiki batekin aurreikusteko moduko errutina bat ezartzeak esan nahi du ekintza berberak (otorduak, siesta, bainua, oheratzeko ordua) une eta toki berean gertatzen direla egunero; haurrak bere egunerokotasunean hurrengo gertaera zein izango den aurreikusten ikasten duenean, gatazkak asko murrizten dira. Izan ere, indar gutxiago gastatu behar du egoera berri edo aldakorretara egokitzen, eta, horren ondorioz, ikeretzeko energia gehiago du.

4. Haur txikiari hitz egitea

“Garrantzitsua da haur txikiari egingo duenaz hitz egitea, egin aurretik”, hala azaldu zuen psikologoak prestakuntza-saioan, haurtxoari beti hitz egin behar zaiola egiten duenaz, egingo duenaz, gertatuko denaz, joango den tokiaz... Haur txiki bati ez bazaio esaten zer gertatuko den, objektu bat bezala tratatzen ari gara, gertatzen ari denaz eta gertatuko denaz hitz egiteak subjektu, pertsona dela aitortzea esan nahi baitu: “Hasieran ez duela ulertu uste arren, hilabete gutxiko haur batek ahotsaren tonua ulertzen du, eta harekin batera iristen zaizkion hitzak ulertzen hasten da. Zenbat eta handiagoa izan errutina, aurrez ikusteko aukera, orduan eta handiagoa da haurrak besteen hitzei zentzua emateko duen gaitasuna”.

Quintelaren esanetan, egunero errepikatzen diren hitz horiek baiez-tatu egiten dute aurreikusteko modu-

koa dena, eta lotara joan aurretik atsedent hartzen laguntzen diote haurrari. Izan ere, haur txikiaren segurtasun-sentimenduak areagotu daitezke, gertatuko dena esateko hitz egiten bazaio: “Gertatuko denaren berri izateak bere unibertsoaren gaineko kontrol-sentimendua ere ematen dio; ez da etengabe harrituko gertakizunengatik. Aldiz, bere burua haien arabera prestatzeko denbora izango du. Helduak haur txikiarekin hitz egitean, gertakizunak aurreikusteko duen gaitasuna indartzen da ahotsaren bidez. Lotarako ordua gertu dagoenean (ohiko ordua delako edo laster nekaturik sentituko delako zantzuak antzeman direlako), haur txikiarekin hitz egin behar da, eta esan behar zaio atsedent hartzeko ordua iritsi dela”.

Psikologoak azaldu duenez, haurren erritmoa helduena baino mantsuagoa da, haurren pentsamenduereduak osatzen ari baitira eta denbora behar baitute informazioa prozesatzeko eta helduari erantzun ahalizateko. “Beraz, lotara joateko unea daterrela iragarri ondoren, itxaron egin behar da haurrak erantzun arte. Beti emango du erantzunen bat: aldaketa sotil bat bere aurpegieran, edo bere interesaren edo prestutasunaren berri ematen duen mugimendu bat”.

5. Erritmoa mantsotu eta gutxiago egin

Gaur egungo gizartean lanpeturik egotea bertutetzat hartzen den arren eta kontrakoa ondo ikusia edo baloratua ez badago ere, Quintelak gomendatzen du erritmoa mantsotzea eta gutxiago egitea.

6. Haur batek “haur-bizitza” eduki behar du

Quintelaren irudiko, haur batek haur-bizitza izateko eskubidea du, eta ez du helduaren bizitzako “gehigarri” bihurtu behar. Haren hitzetan, heldu askok espero dute haurrak beraien bizitzara egokituko direla, baina hori oso zaila da haurrentzat: “Haur baten bizitzak, aspergarria irudi dezakeen arren, beti antzekoa izan behar du, egun batetik bestera aurreikusteko modukoa, horrela garatu ahal izango baitu bere barne-erritmoa. Aspergarria dirudi helduarentzat, baina ez da haurarentzat.”

7. Egun baketsuak

Estimuluak baino gehiago, denbora baketsu eta lasaia eta helduen mundu lanpeturako trantsizio mantsoa behar dute haurrek, psikologoaren aburuz. Helduen hitzek segurtasun- eta erraztasun-efektua baldin ba-



dute, egunean zehar izandako lasaitasunak, soseguak eta baretasunak ere loa eta loaren bizipena egokiak izandaitezen laguntzen dutela azaldu zuen saioan. Era berean, helduaren jarrerek ere laguntzen dutela gaineratu zuen –egiten dituen mugimenduak, ahotsaren tonua, haurtxoarentzat aukeratzen duen ingurunea–. “Lasaigarriak, sosegatuak eta atseginak baldin badira, lagunduko diote lokartzen; estimulatzaileak baldin badira, ez. Egunean zehar gehiegizko estimulazioa –ekintza eta zarata gehiegi– jasotzen duen haurrak arazoak izan ditzake lokartzeko. Zenbat eta baketsuagoa izan eguna, orduan eta aukera gehiago izango ditu umek ondo lo egiteko, hala siestan nola gauean”.

8. Lokartu aurretiko atmosfera baketsua sortu

“Eguna lasaia edo baketsua izan den ala ez alde batera utzita, garrantzitsua da lotara joan aurretik atmosfera baketsua sortzea”, horixe dio Quintelak. Erritu batek lotarako prestatzen lagun diezaioket haurtxoari, psikologoaren iritziz: esaterako, gauean, etxean, ohera joan aurretik bainu bat hartzea, sehaska-kantu bat abestea, haurrak berriki bizitako zer-

bait edo berriki gertatutako zerbait gogora ekartzea. “Gaur-aren eta ‘bihar’-aren arteko zubi bat eraiki daiteke (edo ‘orain’-aren eta ‘gero’-aren artekoa). Esaterako, ohera joateko prestatzen den bitartean, horrelako zerbait esan ahal zaio: ‘Jolaserako erabili duzun objektua apalategira doa’, ‘saskira doa’. ‘Gabon esan nahi diezu zure jostailuei? Bihar goizean, atsedent hartu ondoren esnatzen zarenean, zure zain egongo dira’”.

9. “Logurak akabatzen” egoteak ez du lokartzen laguntzen

Quintelak esplikatu zuenez, heldu askok uste izaten dute ona dela haurra “logurak akabatzen” egongo den unea iristea, horrek loak hartzen lagunduko duelakoan; haatik, aldearantziz izaten da. “Haurrak gehiegi nekatzen badira, zailagoa egiten zaie lokartzea. Guraso eta hezitzaile asko harritu egiten dira ohera goiz joaten diren haur txikiek lo gehiago egiten dutela eta gutxiago esnatzen direla jakiten dutenean”. Psikologoaren esanetan, horrexegatik adi egon beharra dago nekearen lehen zantzuak noiz azalduko (begiak igurzten hasi baino lehenagotik), zantzu horiek adierazten baitute haurra ohera joateko prestatzen hasteko unea dela. “Oheratze-ko eta atsedent hartzeko ordua hurbil-

tzen ari dela esan behar zaio haurrari, bera ere prestatzen has dadin”.

10. Gertatzen denaz eta zuzenean dagokionaz jabetzeko aukera eman haurtxoari

Heldu askok askoz errazagoak eta erosoagoak diren leku edo baldintza jakin batzuetan (besoetan, helduaren magalean, bularrean...) lokartzen uzten diote haurrari, eta, gero, sehaskara edo logelara eramaten dute. Haatik, Quintelak prestakuntza-saioan ohar-tarazi zuenez, garrantzitsua da gertatzen den guztiaz eta zuzenean dagokionaz jabetzeko aukera ematea haurrari. “Horregatik, gomendagarria da haurra esna uztea sehaskan eta ‘gabon’, ‘har ezazu atsedent’ esatea... Horrela, aurrerago esnatzen bada, jakingo du non dagoen”.

Quintelaren iritziz, haurrak modu naturalean garatzea eta egin ahal dutena beren kasa egitea bilatu behar da. Izan ere, haur bati bere kasa lasaitzen uzten baldin bazaio, gauzei aurre egiteko trebetasunak ikasteko laguntza ematen zaio, eta horrela ikasiko du zer egin behar duen hobeto sentitze-ko: “Urruma egitera edo lokartzeko ‘laguntza’ jasotzera ohitutako haurrei zaila egin ahal zaie lo egiteko lasaitzen ikastea, baina, negarrak kontrakoa adierazten duela iruditu arren, haurrak errazago ikasten du errealitateari aurre egiten, haren kontzientzia-egoera aztoratzen ez bada. Kulunkaulkiek, hamaka bibratzaileek kontzientzia eta errealitate-egoera aztoratzen dute, eta haurrak ‘hipnotizatu’ ditzakete balantza-mugimenduekin”.

11. Sehaska lo egiteko edo atsedent hartzeko da

“Trantsizioko” objektuak edo objektu “laguntzaileak” erabil daitezkeela dio Quintelak: peluxeren bat, ez oso handia; koloretako zapi txikiren





bat, kotoi edo lihozkoa... Haren esanetan, ona da haurrari bi objekturen artean hautatzeko aukera ematea: “Zure zapitxoa ala zure untxitxoa nahi duzu laguntzeko?”. Aukeraketa egin ahal izateak egoeraren gaineko kontrol-sentimendua ematen baitio haurrari. Baina trantsiziorako (lagun egiteko) objektu horretaz harago, se-haskak leku lasaia izan behar duela gogorarazi du psikologoak: “Jostailuak jartzea saihestu behar da, batez ere mugimendua eta zarata eragiten badute. Halaber, ohearen gainean jostailuak zintzilikatzea saihestu behar da. Haien presentzia ez dator bat loaren ekintzarekin: haurtxoa oheratzen da loak har dezan, ‘erretira’ dadin, eta ‘hemen’ mantentzen duen objektu bat bere aurrean jartzea ‘lehen telebista’ baten antzekoa da”.

12. Gutxienekoa egin

Quintelak dioenez, haur bat ohera eramaterakoan muturtu egiten bada eta negar egiten badu, edo esnatzen bada eta negar egiten badu, eta aitak edo amak (edo hezitzaileak) besoetan hartzen badu, kulunkatzen badu, paseatzen badu edo berarekin jolasean hasten bada, ume hori gero eta maizago esnatuko da, beste era batera estimulatua izatera ohituko

baita. Psikologoaren ustez, goseak ez badago elikatzeak –kontsolamendurako bide gisa– ez dio haurrari laguntzen. “Elikatzea edo fardelak aldatzea benetan beharrezkoa baldin bada, argiak baxu mantendu behar dira, eta egin beharreko guztia ahalik eta diskretuen egingo da”.

Gutxiena eginez erreakzionatzea da garrantzitsua, Quintelaren ustez; heldua (ama, aita, hezitzailea) presatzen bada eta lehen unetik gehiena egiten badu (besoetan hartu, kulunkatu, paseatu umearekin...), ez dio haurrari ez espaziorik ez denborarik uzten egoerari lasaituz eta lokartuz erantzuna emateko.

13. Zupakia eta hatza

Haurtxikien mundua tentsioz beteriko mundua dela adierazi zuen Quintelak prestakuntza-saioan, litekeena dela haurrek eurek beren kasa bilatzea kontsolatzeko modu bat, estresa bideratu ahal izateko: “Hori gaitasunaren seinale osasungarria da, ez ohitura lotsagarri edo zikina. Errazagoa da baliabide hori erabiltzen duten hurrekin bizitzea. Hatza zupatzea bere buruaren kontsolamendurako ohitura osasungarria da. Dirudenez, jaiotzetiko ohitura da, eta, gainera, ez da gizakiarena bakarrik:

fetuak hatza zupatzen du lasaitzeko, eta berdin egiten dute gainerako primatuek ere”.

Psikologoaren hitzetan, zupakiaren eta hatzaren arteko desberdintasun nagusia zera da: zupakiaren kasuan, kanpoko objektu bat da, eta helduak du haren gaineko kontrola; helduak erabakitzen du noiz eskaini eta noiz kendu haurrari. Aldiz, hatzaren kasuan, haurrak du kontrola: hatza beti dago eskuragarri behar duenean. “Edozein kasutan, komeni da gogoan izatea hatza zupatzeko ohituraren gainean esku-hartzeak, hura desagertzen lagundu beharrean, ohiturari eustea ekarriko duela seguruenik. Ohitura bat sendotzeko modurik eraginkorrena haren kontra jartzea da”.

14. Helduaren konfiantza

Lokartzen ikasteko prozesua mantsoa dela eta ezin dela egun batetik bestera burutu ahantzi gabe, funtsezkoa da haurrak bere kasa lasaitzen eta lokartzen ikasiko duela sinestea eta konfiantza osoa izatea, Quintelaren ustez, helduak haurra arazoak konpontzeko gaitzat hartzen badu, haren trebetasunean konfiantza izaten ikasiko baitu.



BARTZELONAKO MONTSERRAT IKASTETXEA

Adimen aniztasunaren eredu

Eskola adimentsuaren ideia jorratu zuen Nuria Sanchez Povedano gaian adituak “Hezkuntzaren Etorkizunari Begira” izenburupean urtarrilaren 22 eta 23an Bilboko Euskalduna Jauregian burutu zen Erkide Kooperatiben 3. Kongresuan. Bartzelonako Montserrat ikastetxearen esperientzia hasieratik ezagutu duen hezitzaile horren iritziz, edukia irakastea baino gehiago ikaslea hainbat arlotan trebatu eta ikasleari pentsatzen erakustea izan behar du eskolak helburu. 1926an sortutako ikastetxe hau mojen eskola da orain ere, baina azken 20 urteotan hezkuntza erabat irauli du eta pedagogia berritzaileak jarri ditu praktikan, besteak beste, Glen Domanen haurren estimulazio goiztiarraren eta Howard Gardnerren adimen aniztasunaren teorietan oinarrituz. Hainbat eskolen eredu bihurtu da eta “Sor innovació” izena jarri diote aldaketa zuzendu duen Montserrat del Pozo serorari.

Nuria Sanchez Povedanok hasiera-hasieratik ezagutu zuen Montserrat ikastetxeko eraldaketa eta pedagogia berritzailea, nahiz eta orain



Nuria Sanchez

ikastetxe horretan ez egon. Urte horietan izandako esperientziari esker, argi du, etorkizunera begira haurren burmuinak prestatu egin behar direla: “Nola hezi haurrak, lautik hiruk oraindik ez dauden lanbideetan lan egin behar badu? Nola hezi irudikatu ere ezin dugun mundu horretarako? Erronka ez da, urte batzuk barru, lanean hasten direnean seguraski zaharkituak egongo diren edukiak transmititzea, gure haurren burmuina ondo antolatzea baizik, pentsatzen irakastea, garun horren baitan egongo baitira, gerora izango dituzten beharren erantzunak”.

Konparaketa batekin saiatu zen bere ideia hau argitzen: “Haurrak entrenatu egiten ditugu zein ordutan, non, noren aurka, zein zelaitan eta zein eguraldirekin jokatuko duten ja-

kin gabe. Baina argi dago, partidari aurre egiteko entrenatu beharra dagoela. Eskola da adimena-pentsamendua lantzeko tokia eta, gu, eskola adimentsuaren alde gaude”.

Munduan diren aldaketen aurrean eskola berri bat proposatzen dute Montserrat ikastetxeko adituek. Nuria Sanchezek adierazi zuenez, jakintza ez da jada motel eta egonkorra. “Lehen bazirudien ikasten genuena betiko zela. Gaur egun ezinbesteko da malgutasun kognitiboa lantzea, hau da, jakintza-ezaguera bat dugu garatzen eta eraldatzen ari dena”. Gainera, irakasleak azaldu bezala, eskola ez da hezteko eta ikasteko bide bakarra, beste hainbat medio ditugu eskura, “zorionez esango dugu, ikasleek ondo erabiltzen baldin badituzte behintzat: Internet, sare sozialak, ko-

munikabideak eta abar”.

Nuria Sanchezek ez du zalantzarik, mundu mailan bizi bagara, eta hezkuntza bera ere globalizatu egin bada, irekiak izatea dela gakoa. “Gure eskolen eraldatzearen lehen pausua irekitzea izan da, ate eta leihoak zabaltzea, batetik kanpora begiratzeko eta, bestetik, kanpokoek barrukoa begiratu dezaten. Eskolak aniztasunari aurre egin behar dio, zalantzarik gabe, hori baitago gure geletan, eta erronka hori kontuan izateak, aurrean dugun potentzial handi horrek eskainiko dizkigun aukera guztiei atek zabaltzea esan nahi du. Adimen aniztasuna abagune bikaina da ikasle denak aintzat hartzeko, dauden egoeran daudela ere”.

AEBetako hezitzaileen teoriak, Australiako eskoletako berrikuntza eta baliabide teknologikoak, eta beste hainbat joera ezagutu dituzte eta esperientzia truke guztietatik ikasi. “Interesgarriak diren hezkuntza eredu eta egitasmo askotatik edan dugu, eta Montserrat eskolan egin dugun onena, imitatu dugun hori geure egitea izan da. Azken finean, besteengandik ikasten dugu, baina garrantzia norbere proiektua sortzeak dauka. Iturri askotatik edan, baina nortasuna duen egitasmoa sortu”.

Ereduz aldatzeko hiru bide nagusi proposatzen ditu Nuria Sanchezek, lehenengo ikasteari buruzko ikuspegi aldatu, “txip aldaketa beharrezkoa da hasteko”; baina metodologia berriak ere praktikan jarri behar dira, “ezin da ardo berria ontzi zaharretan jarri, ozpindu egingo da eta” eta azkenik, ahal bada, eskoletako gelen egitura aldatu behar da, bai espazioei, bai ordutegiari dagokionez.

Pedagogia berriaren hiru zutabeak

Heziketa eraren aldaketa irudi baten bidez laburbildu zuen Nuria Sanchezek: ikastea, hiru hanka egonkor dituen mahaia da, garapen neurologikoa; garapen psikomote-sentso-

rial eta emozionala. “Gure ikasleei aurrera egiten, garatzen eta ikasten lagunduko dien zutabeak hiru horiek dira: orokortasunetik edaten dute eta lotura sendoak dituzte elkarren artean, elkar elikatzen dira”.

Burmuinaren garapena

Argi dauka Nuria Sanchezek eskola eta hezkuntzak ezin diola gaur egun azken 20-30 urteotan burutu den garapen neurologikoari bizkarra eman. “Ikastea burmuinari dagokio, gure burmuina gara, bertan daukagu adimen transzendental, burmuinarekin maitatzen, sentitzen, pentsatzen dugu. Gure eskolaren erronka nagusia ikasleen garapen neurologikoa bultzatzea da, ikasketa-prozesua gauzatu eta erraztu dadin”.

Sanchezek adierazi zuenez, arazoa zera da: “Haurrak hazten doazen heinean—zorionez, urte betetik Batxilergo arteko ikasleak ditugu eta jaio berriekin proiektu bat hastekotan gara—, eta ikasketek aurrera egiten duten heinean, pisu handiagoa hartzen duela mahaiak, erronka eta zailtasun gehiago izaten direla, jakinduria abstraktoagoa bilakatzen dela, etab. Beraz, edukiak barneratu eta nork bere egiteko estrategia sakonagoak behar ditugu, eta erabakiak hartzeko gaitasuna nahiz pentsamendu kritikoa bultzatzen saiatu behar dugu. Horregatik, burmuinak ondo antolatua egon behar du; baina nola eragin burmuinean? Argi da letrak odolarekin ez direla samurrago sartuko, edota ezin dugula haurren kaskezurra ireki eta hor liburuak sartu, metaforikoki mintzatuz, lehengo eskolak sarri nahi zuen moduan”.

Zentzumenak eta psikomotrizitatea

Nuria Sanchezen iritziz, burmuinean eragiteko gakoa psikomotrizitatearen eta zentzumenen garapenean dago. Horiek dira burmuinak hazteko dituen bi leiho apartak, burmuina elikatzeke bi bide nagusiak. Esperientzia sensorialak, estimulazioa

alegia, eta egokiera motorea, hots, garapen psikomotea.

Psikologo kataluniarrak azaldu zuenez, “batez ere, haur txikien mailan, mahaiaren oin hori indartzen dugu, horixe delako laguntzen duena burmuina ondo antolatu dadin eta haur horrek egoki funtzionatu dezan Lehen Hezkuntzan, Batxilergoan, unibertsitatean, lanean eta bizitza osoan. Burmuina hor egongo baita beti, ikasten segitzeko”.

Garapen emozionala

Dena den, bere ustez, aurrez aipatutako bi oinak lotuta daude garapen emozional egokiari ere. Soilik afektiboa da eraginkorra. “Nik ikasleekin lotura esturik edota afektibaterik ez baldin badut, ez dute ikasiko. Noski, ikasleek autoestima, bere buruarekiko segurtasuna eta garapen psikiko osasuntsua izateko, hirurek bat egin behar dute”. Eskolako psikologoa izateaz gain, psikologo forentse eta klinikoa ere bada Nuria Sanchez eta, oro har, munduak egonkortasun eta oreka hori behar dituela dio.

Abiapuntua oinarrietatik

Nuria Sanchezek eta Montserrat del Pozok eskolako porrotari buruzko lan bat egin zuten, 70. hamarkada amaieran eta 80. hasieran, eta ohartu ziren, porrota Batxilergoan edota oinarrietatik heziketaren azken urteetan baino gehiago, “zoritzarrez”, Haur Hezkuntzan hasten zela. “Ondorio horretara iritsi eta hortik hasi zen gure eskolaren eraldaketa: oinarrietatik”.

Prozesua laburbildu zuen Sanchezek berak: “Haurren adimenaren estimulazio goiztiarrari heldu genion, 80. hamarkadan, eta nabaritu genuen aldaketa oso esanguratsua izan zen, batez ere, haurrek ikasteko autonomian, erraztasunean eta gogo-motibazioan hobetu zutelako. Hori guretzat erronka bihurtu zen, Lehen eta Bigarren Hezkuntzak berritzen jarraitzeko eta orduan izan genuen Howard Gardner eta adimen aniztasuna-

ren berri. Emaizta aparta izan zen eta estimulazio goiztiarra zein adimen aniztasunaren teoriak garrantzi handia dute ordutik, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta baita Batxilergo mailan ere. Erronka kolektiboa da, egitasmoak ezin du bakarkakoa izan, eskola osoarentzat izan behar du”.

Hori azaltzeko Glen Doman ekarri zuen gogora Sanchezek. Hark zioen, potentzialki, Leonardo Da Vincik izan zuen adimenaren parekoa duela edozein jaioberrik. Glen Domanen iritziz, adimen emozionala beste adimenak bezain garrantzitsua da eta eskoletan, besteak beste, landu beharrek. Montserrat eskolan kasu egin zioten: “Irakurketa, matematika eta jakintza entziklopedikoa lantzea oso ondo daude, baina bikaintasun soziala, oinarrizkoa da ikasleengan, bizi-tzan euren aurkezpen karta izango da eta. Beraz garrantzi handia ematen diogu horri. Eta bikaintasun fisikoari ere bai. Garapen neurologikoarentzat lagungarri izango baita”.

Estimulazioa eta guraso eskolak

1994an abiatu zuten Montserraten familien artean estimulazioan eragiteko egitasmoa, orduan joan baitzen Montserrat del Pozo Philadelphiara. Apustua estimulazioa adin egokian egitea izan zen. “Zoritxarrez, eskola gehienetan, lanean hasten direnako, zimenduak jarrita dituzte haurrek, 0tik 3 urtera arteko tartean; lehen urtea bera ere neurologikoki oso garai garrantzitsua da: orduan erabakitzen dira gure burmuinaren metro karra-tuak, gero saiatzen gara hori optimizatzen, txukundu, dekoratu, barruko hormak jarri, banaketa egin eta abar, baina aurretik egindakoa eginda dago”.

Beste proposamen interesgarri bat ere azaldu zuen Sanchezek: gurasoen eskolarena, hain zuzen ere: “Ez da soilik familientzat heziketa klasikoa, gurasoek jaioberriekin estimulazio programa hauetan lan egiten has-

teko aukera dute. 8.000 familiak parte hartu du gure gurasoen eskolan, Montserrat del Pozo eta bion estimulazio goiztiar ikastaroetan. Gure aldetik apustu bat izan da, beraien haurrak gure eskoletan ez izan arren, familiek zein gurasoek aukera dute teknika hauek ezagutu, seme-alabekin praktikan jarri eta bide batez, modu apalean bada ere, Glen Domanek proposatzen digun iraultza honetan parte hartzeko”.

Nuria Sanchezen ustez, oinarrizkoa da ikasleei estimuluen aldetik ahalik eta eskaintza oparo eta aberatsena egitea, burmuinak dituen bikaintasun eta gaitasun denak garatzeko. Burmuin bakarraz mintzatzen gara, baina bi ditugu baten baitan: ezkerreko hemisferioa, analitikoa, logikoa, matematikoa. Ikusten dugun zaitia da, ikusten ez duguna beriz, ez da interesgarri, baina badaukagu: eskuin hemisferioa da, ezkerreko bezain zoragarria, irudimentsua, sortzailea, laguntzailea, aberasgarria eta lagungarria. Jeinuak, talentu handia duenak, bi hemisferioak ditu garatuak”.

Musika txikitatik

Montserrat eskolan ordu erdiko ordutegiaren lan egiten dute Haur Hezkuntzan, eta, esaterako, musika-

irakaskuntza lehen urteetan hasten dute: “Txikitatik biolina jotzen duten haurrak ez dira jeinuak, baizik eta aukera izan dute haurtzarotik musikaz gozatu eta musika tresna bat jotzeko”. Susuki teknika erabiltzen dute musika irakasteko, ama hizkuntza baliatzen erakusten dute musika-tresna jotzen: “Ez da itxaron behar ezker hemisferioa musikaz jabetu arte, eskuintekoarekin hasten gara, sentikortasun-sentipenekin eta imitazioarekin; gero etorriko da solfeoa”. Bi urteko haurrekin hasi eta bost urte bitartean, gehienek biolina jotzeko aukera dute, eta baita, biolontxeloa eta pianoa ere. Ez da eskolaz kanpoko ekintza, denek lantzen dute eskola orduetan.

Sanchez en esanetan, ez dira haur bereziki azkarrak eta apartak, horietatik bat edo bestek izango du talentu berezia musikarako, eta hala bada, ondorengo urtetan garatuko du, baina garrantzitsua zer da? “Denek izan dutela aukera musikaren esperientzia bizitzeko, eta esperientzia hori baliatzeko modua mahaiaren hiru hankei esker. Hau da, zentzumotor koordinazio ona daukate, sokak jo eta biolinaren artea erakustarazi ahal izateko, eta horrekin batera, bikaintasun soziala, biolina zaindu, aginduak arretaz entzun, elkarrekin



lan eta abar egin ahal izateko. Ikasketan dena da garrantzitsu”.

Metodologia aldaketa eta pedagogia-teknikak berritzeari dagokionez, Montserrat eskolaren ezaugarrietako bat da, besteek egin dutena ezagutzera joan eta gero eskolara ekarri eta bertan txertatzea. Pedagogiaren alorra ezagutzera abiatu, interesgarria zein baliagarria iruditu zaiona ekarri eta bertan lanean ziren profesionalak prestatu egin dituzte. Eraldaketaren motorea formakuntza izan da. Eta Sanchez Povedanok esan zenez, Montserrat del Pozok argi du talde batek izan behar duela aldaketen motore. “Funtsezkoak dira animatu, bultzatu, eta gurditik tira egiten dutenak”. Beti gertatzen da bere ustez, heren bat aldaketaren alde egotea, beste heren batek ere onartzea aldaketa, eta beste herena kontra egotea. Alor guztietan gertatzen da hori, kontrako norabidea hartuko du %33ak. “Oso garrantzitsua da motorea zaintzea, baita segitzen dutenak ere”. Horregatik, Montserratekoa ez da bakarkako egitasmoa izan, kolektiboa baizik.

Montserrat eskolan berrikuntzak martxan jartzeko oinarri neurologikoak finkatzerakoan eta esanahia ematerakoan ezagutu zuten Harvard Unibertsitateko proiektua eta Howard Gardner. Sanchezen esanetan, gizakien potentzialaren eta adimenaren izaera konplexuaren beste ikuspegi bat ematen du berak. “Bizitza osoan gurekin daukagun eta egiten dudana baldintzatzen duen adimen koefiziente estatiko eta zurrunaren ikuspegia amaitu da; gauregun oraindik, adimenaren test intelektualak erabiltzen dira, baina balio erlatiboa daukate, giza adimen kontzeptua hori baino askoz konplexuagoa baita. Dinamikoa da eta denboran zehar aldatu daiteke, bakoitzaren baitan dago adimena hobetzea”.

Sanchezek aipatu zuen albiste on bat eman ziela Gardnerrek. “Denok gara buruargi, denok dugu talentua,



ikasgai bat bera ere gainditzen ez duena ere adimentsua da. Adimen anizkoitzaren teoriak, ikasteko metodologia aldatuko du, baina baita ebaluatzekoa ere. Ondo begiratu, ikusi, aztertu eta balioztatu behar da ikasleak dakiena ezagutzeko, soilik idatzizko azterketa bat begiratzen bada, hor hitzeko adimenak eta linguistikoak pisu handia dute, eta alor horietan ahul diren ikasleek erakusten ari direna baino gehiago dakite”.

Howard Gardner pedagogian eta neorologian da aditu, Harvarden pedagogia eta Bostonen neurologia irakaslea da. Mundu osoko hainbat eskolen eraldaketa eta berrikuntza eragin duen “Harvard Zero” proiektuaren arduraduna ere bada. Teoria horren ezaugarri nagusiak azaldu zituen Nuria Sanchezek: “Gardnerrek dioenez, hainbat adimen motaren nahasketak egiten du gizakia. Denok gara adimentsu eta bakoitzaren indarguneak aurkitu behar ditugu. Adimen horiek guztiek pisu berbera dute, ez daude mailakaturik. Lehen burmuinaren ezker aldeari ematen ziztaion garrantzia, eskuinekoak bakoitzaren apetak ziren. Aldiz, Gardnerren ustez, denek laguntzen dute gure garapen armonikoan, eta denak buruan kokatzen dira. Esparru teorikoa oso landua, irekia eta dinamikoa dauka berak eta bederatzi inteligentzia ezberdini buruz idatzi eta teori-

zatu du, eta irakaskuntzari lotutako hamargarrena ikertzen ari dela jakin dugu”.

Montserrat eskolan bat egin zuten Gardnerren teoria horrekin. “Inteligentzia anizkoitz hauek bizkortzea lagungarri da ikasleen garapen armoniko eta orokorrean. Ziur gaude horretaz: ikasteko leiho berriak irekitzen dituzte, eta aldi berean ikasi dutena baloratu ahal izateko tresna berriak sortu beharrean gaude”.

Aldaketa bortizik ez

Adimen anizkoitzen aplikazioak metodologia berriak eskatzen ditu berez, baina aldaketak pixkanaka egitearen aldekoak dira eta Montserrat eskolaren lagunarte bereko zenbait ikastetxetan eraldaketa prozesuan murgilduta daude: “Materiaren bat jorratzen ari dira modu berriaren arabera, eta gogo handiarekin gainera, edo irakasle batzuek irakatsitako arloetako bakarra lantzen duten adimen anizkoitzaren ikuspegitik. Hori ere posible da. Orain arte egindakoa zakarretara bota eta berriro zerotik hastea, aldaketa sakonak, oso arriskutsuak direla uste dut. Gainera lekualdaketetan balio handiko gauzak galdu daitezke. Hobe da ondo egiten ari garen gauza on horiei eustea; agian barniza eman beharra izango du, *look* aldaketa, baina funtzionatzen badu ez dugu utziko”.

ESKOLA TXIKIAK

Txiki izatearen abantailak

“Eskola bat txikia ez bada, ez da eskola”, halaxe adierazi zien Francesco Tonucci pedagogo italiarrak Gipuzkoako Eskola Txikietako irakasleei, urtarrilaren 27an eta 28an eman zizkien prestakuntza-saioetan. Euskal Herriko egoeratik abiatuta eta esperientzia pertsonalean oinarrituta, gaur egungo gizarteko haurren beharrei erantzun dieten eskolak zer gako izan beharko lituzkeen azaldu zuen, eta eskola txikiek izan ditzaketen hainbat onura aipatu zituen.

Zoriontasuna izan ote daiteke gaur egungo hezkuntzaren xedea? Hausnarketa horrekin abiatu zuen Tonuccik saioa, eta azken urteotan hezkuntzak izan duen bilakaera ekarri zuen gogora. Haren esanetan, soilik gutxi batzuentzat zen eskola lehen, eta soilik erdi- edo goi-mailako familietako haurrek, etxetik prestatuta zetozenek, egiten zuten aurrera: “Familia horiek etxeko prestakuntzaren osagarritasuna bilatzen zuten eskolan, eta, beraz, eskola ez zen oinarritzako prestakuntzarako tokia”.

Tonuccik azaldu zuenez, iraultza gertatu zen hezkuntzaren alorrean 60ko hamarraldian, eta 14 urte arte eskola doan ematea lortu zen hainbat herrialde demokratikotan: eskola berbera guztientzat. Pedagogoen iritziz, sekulako lorpena izan da hori maila politikoan, baina akats



izugarria egin da hasieratik: “Gutxi batzuentzat pentsatutako eskola eskaini zaie guztiei, eta, horren ondorioz, gehiengoak porrot egiten du. Izan ere, etxekoaren osagarri izango zen hezkuntza eskaintzen jarraitu da, kontuan izan gabe haur asko oinarritzako hezkuntzarik gabe iristen direla eskolara”.

Uneotan hezkuntza-sistemak duen erroka nagusia ikasle guztientzako balioko duen eskola eskaintzea da, Tonucciren ustez, eta “mirari hori” eskola txikietan posible dela dio.

Nola egin guztientzako balio duen eskola?

Eskolak, lehen-lehenik, aurrez familiek egiten zuten lana bere gain hartu behar duela eta haurrei oinarrizko kulturalak eskaini behar dizkiela dio

Tonuccik. Haren hitzetan, derrigorrezko eskolak ezin die inolaz ere errua familiei bota, eta, beraz, guztientzako baliagarri izango den eskola sortu behar du, baita zailtasun handiagoak izan ditzakeen haurrentzat edota inolako borondaterik gabe doanarentzat ere. Horrexegatik, haurrek ez die zertan irakasleei jarraitu, baizik eta alderantziz: “Eskolan giro egokia sortzea dagokie irakasleei. Haurrek liburuak izan behar dituzte, musika entzuteko aukera, ingurune lasaia, eta abar”.

Guztientzako baliagarri izan daitekeela uste duen eskola horren oinarri filosofikoa entzumena da, Tonucciren irudiko: “Tradizioan, haurren egitekoa irakasleei entzutea izan da eskolan, haiek baitziren zekiteinak. Orain, ordea, badakigu hori ez dela egia eta haurrek haurtzaroan bizitza osoan baino gehiago ikas deza-

ketela. Beraz, irakasleok zer proposamen egin ditzakegu haurrek euren kabuz ikas dezaten?”.

Aniztasuna onartzea eta egoki kudeatzea da guztientzako balioko duen eskola batean kontuan izan beharreko beste gakoetako bat, Tonucciren arabera. Izan ere, irakaskuntza egoki batean, eskolan dakitena-ekin sartzen utzi beharko litzaieke ikasleei, eta etxetik edo kaletik hartutako hori eskolara eramaten uzteak aniztasuna onartzea esan nahi du: “Aniztasuna onartzen dugu aniztasun hori behar dugulako, taldeak ez baitu zentzurik guztiak berdinak badira. Taldean era askotako jendea bada, talde hori autonomoagoa eta boteretsuagoa izango da”.

Haur baten gaitasunak onartzeak haurrari falta duen hori berreskuratzen eta zoriotsu izaten lagun diezaiokeela dio pedagogoak. Hark dioenez, ikasle bakoitza bere alorrean, berak gustuko duenean eta pasioz egiten duen horretan onena izatea izan behar dute helburu irakasleek. “Pentsatzeko modu horretan, edukiek ez dute interesik; balio duena haurrek edukiak proposatzea da. Beraz, guk bermatu behar duguna metodoa da. Irakasleak baliabideak haurren eskura jartzen ditu, eta lagundu egiten die, baina ez die esaten hau bai eta hori ez”.

Adin guztietako haurrak batera: deliberamenduz edo halabeharrez?

Diferentziarik egin gabe guztiei irekita ez dagoen eskola bat eskola ez den moduan, txikia ez den eskola bat ere ezin dela eskola izan dio Tonuccik. Izan ere, txikitasunean soilik da posible komunitate-izaera gordezea. Baina, haren ustez, eskola guztientzako modukoa izan dadin ez da nahikoa hori soilik; urrats bat aurrera egin behar dela dio, gelak kentzeko, adinaren arabera sailkapenak saihesteko eta irakasgaiak ezabatzeko. “Ikasgela toki abstraktua da. Bizitza errealean, gainera, inoiz eta inon ez da jendea adinaren arabera sailkatzuten. Irakasgaiak zatikatuta ematen dituzten eskolak ere iragarriak dira, eta ez dute errealitatearekin zerikusirik”.

Eskoletatik gelak eta irakasgaiak kendu eta lantegiak sortzea proposatzen du Tonuccik: plastikako lantegia, hizkuntzetako lantegia, matematikako lantegia, sukaldaritzakoa, eta abar. Eta adin guztietako haurrak nahasian lantegi batetik bestera pasatzen joatea, bakoitzaren interesen arabera. “Horixe da zientzialariek edota artisauiek egiten dutena. Beraz, goi-mailetan horrela funtzionatzen bada, haurrekin ere zergatik ez jokatzea berdin?”. Pedagogoren aburuz,

eskola txikiek beste eskolek ez bezalako abantailak dituzte horrela funtzionatzeko, baina zalantza egiten du zenbait eskola txikitik adin guztiak batera, areto handietan eta irakasgai-rik gabe kontzientziaz eta deliberamenduz edota halabeharrez aginduta egoten ote diren.


Nola joratu hainbat alor?

Eskola txikietako irakasleekin egindako saioan, guztientzat balioko duen eskolak izan beharko lituzkeen hainbat ezaugarri eman zituen Francesco Tonuccik, eta, horretarako, hezkuntza-sistemaren barneko hainbat alor nola joratu azaldu zuen:

1. Jolasa: pedagogo italiarrak azaldu zuenez, haurrek hezkuntzarako eskubidea izateaz gain, jolaserako eskubidea ere badute. Haren ustez, beraz, ikaskuntzak eta jolasak pisu berbera izan behar lukete, nahiz eta sarritan eskolak jolasari denbora guztia jaten dion: “Zientziak erakusten digu pertsonen ikaskuntza-prozesurik esanguratsuenak eta garrantzitsuenak jolasean gertatzen direla. Horrexegatik, oso garrantzitsua da jolasa errespetatzea”. Hortaz, haurrek ongi eta aske jolas dezaten interesa eduki beharko luke eskolak, Tonucciren ustez, haurrek eurek esaten baitute jolasean gauza interesgarriak gertatzen zaizkiela, baina eskolako lanetan ezetz.

2. Gertuko esperientzia konplexuak:

haurren burmuinaren biderei jarraituz eta gertuko errealitateetik abiatuta ikasi behar dela aipatzen du Tonuccik, eta, sarritan, haurrei eskura euren adinerako, ustez, egokiak diren edukiak jartzen bazaizkie ere, kontrakoa egin behar dela, gertuko esperientzia konplexuak eskaini. Izan ere, pedagogoak dioenez, burmuinak espezializazioan egiten du lan: “Haurrei esperientzia konplexuak eskaini behar zaizkie,



konplexutasun horren barruan haurrak euren kabuz mugi daitezten eta errealitate horrekin harremanean ikas dezaten”.

3. Irakurketa: Tonucciren hitzetan, irakurtzea ez da hizkiak deszifratzea; aitzitik, irakurtzen ikasteko, entzuten jakin behar da lehenik, eta hiru proposamen egiten ditu entzumena lantzeko:

a) Herriko liburu-denda lantegi bat balitz bezala erabiltzea: “Lantegira joan eta nola antolatuta dagoen ikusi, liburuak aztertu, bertan irakurri, eta abar. Baina liburu-dendara behin joatea ez da nahikoa izango, maiztasunarekin joango gara hara. Lehenik, liburutegia ezagutuko dugu, liburutegian hitz egingo dugu... Eta, gero, agian liburu bat erostera itzuliko gara. Haur bakoitzak berak gustuko duen liburua aukera dezala. Gero, nahi izanez gero, gelan liburuak dioena aurkez dezake ikaskideen aurrean. Aitzitik, inoiz ere ez diegu guztiei liburu berbera irakurtzeko aginduko, eta ez diegu esango irakurritako liburuaren gainean fitxak egiteko ere”.

b) Haurrei gelan bertan liburuak irakurtzea: “Irakasleak berak ere irakur dezake liburua, edo kanpoko norbait gonbida daiteke (gurasoak, aitona-amonak, herriko ezagunak...). Ez da nahikoa, ordea, soilik ipuinak irakurtzea. Liburu osoak irakurri behar dira, egunez egun, telenobelak balira bezala, haurraren interesa pizteko. Gera daitezela haurrak hurrengo egunean liburuarekin jarraitzeko irrikaz”.

c) Lehen Hezkuntzako haurrak gonbidatzea Haur Hezkuntzakoei irakurtzera: “Haurrek eurek baino haur zaharragoei arreta handiz entzun ohi diete, eta benetan esperientzia bikaina izaten da”.

4. Idazketa: Tonuccik dioenaren ara-



bera, Haur Hezkuntzan ez da pasatu behar denbora asko eskuarekin idazten ikasteko ariketak egiten; eskua margotuz, josiz, moztuz, buztinarekin ibiliz, eta abar hezten baita, ez, ordea, helburu jakin bat lortzera (idazten ikastea) bideratuz edota hizkiak kopiaturaz. “Hortaz, nola proposatu idazketa? Galdera garrantzitsua da, haurrak zentzua aurkitu beharko baitio idazteari, horretara anima dadin. Haurrak zertarako idatzi behar du? Komunikatzeko. Beraz, haurrak konturatu beharko du idazteak komunikatzeko balio diola”.

5. Zientzia: “Zein da haurren zientzia?”, galdera horixe egiten du Tonuccik, eta erantzun hauxe ematen dio: baratze, sukaldea, zeramikako lantegia... Prozesu konplexu horien barruan haurrek teoria zientifikoak aurki ditzaketela dio pedagogoak: “Interesgarria izan liteke animaliak haztea, bizitza duen edozerekin eta naturarekin harreman estua izatea, horixe izango baita haurren zientzia-iturria”.

6. Sukaldaritza: janariarekin loturiko zenbait arazo tarteko, janariarekin erlacionatutako alorrak hezkuntzaren barnean txertatzea proposatzen du Tonuccik, eta eguneko unerik garrantzitsuena bazkaria izatea. Gaur egungo jangelen kontra dago pedagogoa, ez baitu ulertzen toki berean 100-200 lagunek nola jan dezaket. Errealitatearekin zerikusirik ez duen toki arraro bat irudi-

tzen zaio, baina nola ezabatu jangelak? “Nahikoa litzateke sukaldaritza-ko lantegi gisara hartu eta gelan bertan jatea. Ikasleek eurek jar dezakete mahaia; nahi duten janariak nahi duten beste hartu, eta elkar zerbitzatu. Frogatuta dago sistema horren bidez janari gutxiago botatzen dela zaborretara, errieta eta iskanbila gutxiago izaten direla, ontzi gutxiago apurtzen direla, eta abar. Beste aukera bat noizbehinka bazkaria haurrek eurek prestatzea izan liteke, jakiak eurek erostea, eurek kozinatzea eta jan ondorenean balioespena egitea”.

7. Marrazketa: marrazkiak egiteak komunikatzeko, adierazteko eta barneko sentipenak kanporatzeko balio duela dio Tonuccik, eta, haurrak nahi duen eran adierazteko eskubidea duen arren, sarritan marrazkiak egitea edo margotzea denbora galtzeko modutzat hartzen dela eskoletan eta ez zaiola ematen behar besteko garrantzirik. “Normalean, zenbait lan agintzen dizkiegu haurrei, eta, gainerakoek baino lehenago amaituz gero, marrazki bat egiteko esaten diegu; gero, ez diegu kasurik egiten marrazkiari. Haurra konturatu egiten da guretzat marrazkia ez dela garrantzitsua. Beraz, ez du arretarik jartzen egiten ari den horretan, eta sekulako pena da hori, zeren, marrazkiarekin beselako zereginekin bezainbeste gaitasun eta trebetasun lantzen baititugu”.



XXI. JARDUNALDI PEDAGOGIKOAK

2014ko MARTXOAREN

10EAN ATARIKO HITZALDIA
DONOSTIA-KOLDO MITXELENA

12 ETA 13AN

GASTEIZ-EUROPA JAUREGIA

ZIENTZIAK IKASI ETA IRAKATSI ZERTARAKO?

HH ETA LH ETAPEI ZUZENDUTA

IKUSI, DASTATU, IKERTU...

ZIENTZIAK EGIN

1.61803398874989...

Zer funtzio bete dezake irakasle-*coach*ak gaur egungo hezkuntza-sisteman



Gaur egungo hezkuntza-sisteman erronketako bat ikasten ikastea dela esaten da. Horretarako, ordea, bi irizpide izan behar ditugu kontuan: bate-tik, malgutasuna, etengabe ikasteko gai izan gaitezen; eta, bestetik, heldutasuna, sarean antolatuta dagoen munduan bizitzeko. Ingurunea eta mundua gero eta azkarrago ari dira aldatzen. Horrexegatik, gurasoon nahiz irakasle-*coach*en egitekoa da uneotan nolakoa izango den ez dakigun etorkizun horretarako seme-alabak prestatzea.

Bide horretan, krisi moduko bat ari da gertatzen hezkuntza-alorrean, eta krisi horrek zerikusia du azken urteetan gertatu den edukien demokratizazioarekin. Edozein eduki edonoren eskura dago. Jada ikasleak ez du behar eskola magistralik uretako izarra nola ugalduko den azal diezaioten, nahikoa baitu horretarako Youtubera jotzea.

Gure ikasgeletan, ohiko arbelak erabiltzetik arbel digitalak erabiltzera igaro gara; proiektzioak, ikus-entzunezko materiala edota Internet eta antzeko erremintak ere erabiltzen ditugu, baina ez ditugu zalantzan jartzen ikas-kuntzarako espazioak eta esperientziak sortzean darabiltzagun dinamikak eta jokatzeko ditugun rolak. Irakasle asko oraindik jakintzaren autoritate di-



Asier GALLASTEGI

'COACH'A, AHOLKULARIA ETA UNIBERTSITATEKO
IRAKASLEA (WWW.KORAPILATZEN.COM)

ra, eta "ez dakiten" ikasle batzuei euren jakintza transmititzen diete. Zenbait kasutan, ordea, ikasleek gehiago jakin dezakete irakasleek baino. Kasu horietan, ez du balio tradizioz irakasleek orain arte jokatu duten paperak.

Izan ere, ez da kanala soilik aldatu digitalizazio-prozesuaren ondorioz (digitala analogikoaren orde), baizik eta edukia/informazioaren balioa erlatibizatu egin da (pertsonek eskura), eta ezagutza eraikitze moduaren balioa handitu egin da. Testuinguru horretan, irakasleek lehen ez bezalako prestakuntza behar du. Garrantzitsua da metodologia berriak ezagutzeko eta baliabideez jabetzea, baina,

batez ere, jarrerari erreparatu behar diogu. Orain dela gutxi arte, ezagutza finitua zen, eta pertsona batek gutzia ezagutzeko pretentsioa izan zezakeen. Gaur egun, hori pentsatzeak ez du zentzurik. Beraz, irakaslearen egiteko nagusia ikaslearen errealitatearen hainbat alderdi ezagutzeko eta ikertzeko aukera emango dioten espazio eta testuinguru egokiak sortzea izango da.

Hezkuntza-testuinguru berri horretan, irakaslearen zeregina ikasleak jakintza modu esanguratsuan eskura dezan laguntzea izango da, eta horretarako baliabideak haien eskura jartzea. Ekintza, praktika, eskala txikiko erakuntza edota esperientziaren gaineko hausnarketa izango dira ikaskuntza aktibo, deszentralizatu eta konektaturako gakoak. Zeregin horretan lagun diezaguke *coaching*aren ikuspegia hezkuntzan txertatzeak.

*Coaching*era hurbilketa

Eguneroko erronkei aurre egiteko gaitasun berriak hartzeko prozesua izendatzeko erabiltzen da *coaching* terminoa. Berorren bidez, ikuspegi berriak lantzen dira, norberaren ezkutuko ahalmenak azalerraten dira, eta estrategia eta jarrera alternatiboak probatzen dira.

Zailtasun-egoera batetik abiatzen gara, hots, frustrazioa eragiten digun egoera batetik. *Coaching*aren oinarrian, elkarriketa dago. Norbere izaeraren eta jarduteko moduaren zenbait alderdi aldatu nahi dituen pertsonak hainbat egoera zehatz partekatzen ditu *coach*arekin, hau da, erlazioa egituratzen duen pertsonarekin, eta elkarren artean azaldutako egoera zehatz horren inguruko hausnarketa egiten dute, deskribatutako egoerari beste ikuspegi batetik begiratzeko eta arazoari irtenbidea bilatzen saiatzeko. Horretarako, *coacha* espazio segurua eraikitzen saiatzen da, edozein epaitatik askea izango den eta pertsonari bere zalan-tzak azaleratzeko bidea emango dion espazio bat eraikitzen. Aurretiaz, ez da inolako baldintzarik izango, baldintzarik gabeko egoeratik soilik sortuko baitira aldaketak.

Coachinga, gaur egun ezagutzen dugun moduan, nahiko proposamen berria da, eta etengabe ari da garatzen eta korrante, eredu eta eskola berriak sortzen. Gainera, laguntza-harremankin zerikusia duten beste praktika batzuk bezala, *coach*aren ezaugarrien, historiaren, nortasunaren eta ibilbide profesionalaren arabera da praktika hori ere, neurri handi batean. Gauza bera gertatzen da ikasgela barruko testuinguruan ere: estrategia, dinamika edota esku-hartze eredu berberak era bateko edo besteko forma eta hondoa izan dezake, irakaslearen, irakasgaia-aren, taldearen, testuinguruaren, eta abarren arabera.

Proposamen berria izan arren, *coachingak* ez dakar hezkuntza-prozesuak ulertzeko modu berririk; aitzitik, gaur egungo errealitate berrira hobeto egokitzen diren zenbait korrante eta esperientzia berreskuratzen ditu. Haur Hezkuntzako jardunean, adibidez, hainbat esperientzia iradokitzaile izango genituzke. Nola baliatzen dute ikas-teko pasioa? Nola erabiltzen dute esperientzia ludikoa? Nola egituratzen dituzte banan-banako izaera handiagoa izango duen ikaskuntza garatzeko espazioak? Nola dago egituratuta ikasgela? Hitzaz bestelako adierazpideak nola txertatzen dira? Zer toki betetzen dute irakasleek?

Azken batean, *coachingak* tradizio pedagogikotik, terapeutikotik nahiz komunikazioaren eta lagun egitearen inguruko tradizioetik hartzen ditu ideiak. Beraz, *coaching*aren erronketako bat hezitzaile askok dagoeneko ezagutzen duen horrekin berriro konektatzea da. Azken aldian, indar handia ari dira hartzen eskola libreak, baita Montessori metodoa edota adimen anizkoitza delako kontzeptua ere. Horrek adierazten du parametro askotatik ari direla gaur egungo hezkuntza-jardunaren hausnarketa egiten eta orain arte ezagutu dugun hezkuntza-sistema berri-berri nahian. *Coachingak* ikaskuntza-prozesuetan irakaslearen tokia berrirri pentsatzeko erreminta eskaintzen du.

Dagoeneko hasi dira hainbat unibertsitatetan ikasleentzako *coaching*-programak eskaintzen. Horietako batzuetan, ikasketak *coaching* indibidualaren bidez osatzeko esperientziak eskaintzen dituzte. Beste zenbaitetan, berriz, *coachinga* darabilte, laguntza indibidualaren nahiz kolektiboaren bidez, proiektu errealak abian jartzeko (adibidez, enpresa bat sortu).

Testuinguru horietan, irakasle-*coach*ak hitz egiten da, beste zenbait inguruetan lider-*coach*ak edota gerente-*coach*ak hitz egiten den moduan. Eta irakasle-*coach*ak balio dezake, unibertsitateko ez ezik, aurreko hezkuntza-sistemarako ere.

Eskolak eta irakasleek sekulako ahalmena izan dezakete *coachinga* eskola-esparruan aplikatzeko eta ikaskuntza-prozesua esanguratsuagoa izan dadin aldaketak abian jartzeko



Irakasle-*coach*aren rola eraiki ahal izateko egin beharreko zenbait aldaketa:

Eskolak eta irakasleek sekulako ahalmena izan dezakete *coachinga* hezkuntza-esparruan aplikatzeko eta ikaskuntza-prozesua esanguratsuagoa izan dadin aldaketak abian jartzeko.

Beraz, zer egin irakasle-*coach*aren papera hartzeko eta hezkuntza-jardura hobetzeko? *Coaching*-prozesu batean konfiantza giroa sortzea oinarrizkoa dela diogu. Horixe izango da gela batean sartzean izango dugun lehen egitekoa, eta bereziki garrantzitsua izango da lehen saioetan. Hortik abiatuta,



Ikasleei eurei ikertzen lagunduko dieten espazioak sortzeak, ikaskuntza-prozesuan ikasleari lagun egiteak eta irakasleon

jarrera aldatu eta berdinetik berdinerara jarduteak gure heziketaren kalitatea hobetzen lagun diezaguke



hainbat fase izango ditu irakasle-*coach* baten jardunak:

- **Isiltasuna. Ezjakintasuna. Entzuten ikastea.** Garrantzitsua da besteen jarduna ez eteten ikastea, bestearen erritmoari behatzea eta erritmo hori errespetatzea, isiluneei tartea egitea... Gure pertzepzioa lantzen dugu, eta adi gaude esaten dena entzuteko nahiz esateko moduari erreparatzeko.

- **Emozioa hauteman.** Harremanen egiten zaie lekua. Hautematen dugun horri izena jartzen diogu (adibidez, 'haserre zaude'), eta, hortik abiatuta, zerbait garrantzitsuari buruzko elkarrizketa abiatzen dugu.

- **Galdetu. Ez epaitu.** Geurea ez den ikuspegi eta bizipen bat ulertzea. Behatu eta ulertu nahi dugu, eta pentsamendu berriari bidea ireki nahi diogu. Gure ikuspegia zabaltzeko, galderak egiten ditugu. Galderak garbiak, azpian erantzunik gordeta ez dutenak eta esploratzaileak izango dira, hots, galdera labur eta irekiak, erantzun luzei bidea irekiiko dietenak.

- **Berriro kokatu, perspektiba eman. Pentsatzen lagundu.** Parafraseatu egiten dugu, sentipenak nahiz irudiak partekatzen ditugu, eta horien gainean hitz egiten dugu. Egoera jakin batean zein toki dugun hausnartzen laguntzen digu horrek. Paradoxak erakusten ditugu, eta, askotariko perspektibek tokia izan dezaketenen dilemak eraikitzen ditugu.

- **Helburu baterantz mugitu.** Irakasle-

coach ikasleei beren buruaren gaineko aldaketak eta ikaskuntza-helburuak eraikitzen laguntzen die. Ekintza-plan zehatzak, neurgarriak eta interesa duen pertsonarengan txertatuta daudenak eraikitzen laguntzen du. Berrikusteko espazioak gune pribilegiatu bilakatzen dira, hainbat gauzaz ohar-tzeko eta gure ikuspegia zabaltzeko.

Nola aplikatu irakasle-*coach*aren rola ikasgelara?

Irakasle-*coach*aren rola ikasgelan gertatzen denari hainbat ikuspegiatik begiratzera daroma irakaslea, irakasle-rola berreraikitzen. Horretarako, kontuan izango du zein den gaur egun edukiaren funtzioa, kanal berrietara eta ikasteko modu berrietara irekita egongo da, eta, horren ondorioz, ikasleen jarrera proaktiboa bilatuko du. Ikasleak, aitzitik, irakaslearen bidez, justu ikasteko beharrekoa duen ezagutza soilik eskuratuko du. Era berean, ikasleak irakasleari "nola irakatsi behar duen irakasten" dio, eta irakasleak, interakzio horretatik abiatuta, nola irakatsi behar duen "ikasten" du.

Ikasgelan *coaching*-prozesu bat kontratu baten bidez hasten da. Testuingurua, usteak eta rola azalerazi behar dira lehenik, eta, oinarri horren gainean, edukiak, ikastaroaren iraupena, ebaluazioa, etab. zehaztu. Giltzari horietako zenbait aurrez zehaztuta egongo dira hezkuntza-testuinguru batzuetan; hau da, aurrez ezarritako mugak izango dira. Bada, muga horiek ere argi eta garbi adierazi behar dira. Zer alda dezakegun eta zer ez jakin behar dugu ikasgelako partaide guztiok. Inguramendua zehaztuta dagoenean, gaineko guztia partaide oro lotuko gaituen akordio baten parte da.

Batzuetan, ikasleengandik urrun dauden galderak egiten ari garela irudituko zaigu, ez garela ari haien beharretara iristen. Izan ere, maiz, arazo bat planteatu ohi dugu erantzuna jakinda, eta ikasleek erantzuna asmatzea da horrekin bilatzen dugun gauza bakarra. Baina pentsatu ote dugu nolakoa izango litzakeen ikaskuntza-prozesua jarrera "ikertzaileago" baten bidez laguntzea? Zientzialariak ez du erantzunik ja-


kiten, eta ez du jakiten erantzunik aurkituko duen ere. Aitzitik, hipotesi bat planteatzen du, eta, eskura duen informazioan, esperientzian eta behaketan oinarrituz, hipotesi hori berresten edota baztertzen du. Zer egin ote dezakegu guk ere antzera jokatzeko?

Gure gaitasunak (ikasleek nahiz irakasleek) gaitutako dituzten erroreak planteatu behar ditugu, pertsonok jardura horretan erabat inplikatzera eramango gaituztenak. Ikuspegi horretatik, ikaskuntza-prozesu bat laguntzeak esan nahi du irakasleak ez dituela erantzunik ezagutzen. Baina zer-nolako esperientzia da irakasle baten 'ez dakit' esatea? Huts egitea eta zaurgarri agertzea da? Bada, ezagutza esanguratsua eraikitzeke informazioa ehuntzen lagunduko luke jarrera horrek. Huts egitea, erantzun okerrak ematea, ikaskuntzarako ezinbesteko urratsa da. Galderek erantzun bakarrak badituzte eta soilik saio amaieretan planteatzen badira, horien helburu bakarra zuzentasuna neurtzea da, eta, zenbait kasutan, edukiak buruz ikastea, baina ez besterik.

Irakasle-*coach* edukiak plazaratzen ditu, eta ikasleek esku uzten du eduki horiek erlazioatuko dituen harria jostea, hau da, eduki horietatik guztietatik zein izango diren esanguratsuak ikasle bakoitzarentzat eta, horrez gain, narrazio bakoitzak zein zentzu izango duen. Prozesu horretan, entzute aktiboa oinarritzko erreminta da. Elkarriketek, berriz, irakasgaien helburuetara gerturatzen laguntzen digute, hau da, kasu askotan, gaitasun espezifikoak nahiz orokorrak eskuratzen laguntzen dute, bai eta pentsamendu sistemikoa, talde-lana, pentsamendu kritikoa, eta abar garatzen ere.

Gure hezkuntza-sisteman, gehiegi txotan eman ditugu erantzunik, artean galderak formulatu ere egin gabe gaituenean. Iraul dezagun, bada, jarduteko modu hori, esperientziak argi erakusten baitigu ikasleei eurei ikertzen lagunduko dieten espazioak sortzeak, ikaskuntza-prozesuan ikasleari lagun egiteak eta irakasleon jarrera aldatu eta berdinetik berdinerara jarduteak gure heziketaren kalitatea hobetzen lagun diezaguketela.

argitalpenak



Tom Sawyerren abenturak

Mark Twain

Itzulpena: Iñaki Mendiguren eta Sarah J. Turtle

EREIN

Tom espaloian agertu zen baldean kare-esnea zuela, eta kirten luzeko brotxarekin. Hesiari begiratu zionean, poztasun guztia joan zitzaion eta malenkonia sakonak hartu zion arima. Bizitza hutsa iruditzen zitzaion, eta existentzia, zama astuna. •



Ipuintxo bat gauero.

Liburu handia I eta II

AIZKORRI

Betiko istorioen edo ipuinen bilduma jasotzen da liburuetan. Ipuin laburrak dira, irakurterrazak, eta marrazki koloretsu eta politez apaindurik daude istorioak. Aurrez, formatu txikiagoan argitaratu zituzten liburu berak. Izandako arrakastarengatik, formatu handian argitaratzea erabaki dute orain. •



Nire potxolina maitea

Alaine Agirre / Eider Eibar

ELKAR

Loaren eta ametsen itsasoan, igerian dabil Alaia. Igelen moduan ireki eta ixten ditu besoak eta hankak. Hain dago gozo loaren ametsetan... Gozotasunetik ihesi, pijamaren galtzak bustita dauzkala ohartu da. Alaiak txi-za egiten du eta gauetan ohea bustitzen du. Ez du nahi, baina ez daki nola saihestu. •



Basoan barrena

Anthony Browne

PAMIELA ETA KALANDRAKA

Kontakizun honetan mutikoa basoan barrena doa, Txanogorritxo amonaren etxera bezala. Bidean, era askotako arrisku eta ezustekoak topatuko ditu mutikoak ere, Txanogorritxok bezala. Nora ote doa, baina, mutikoa? Amona bisitatzera? Beste lekuren batera? Onik iritsiko ote da doan lekura? •



Antartidarako bidaia

Montse Homs / Marta Biel

Itzulpena: Antton Olano

TTARTTALO

Bixkorrak parkean jolasean dabil-tza. Hego polora doazela eta bidaia-rako prestalanak egiten ari direla imajinatzen hasten da Anna. Usuaiako portuan, zientzialari batzuek izotzeko lurraldera joateko prestatzen dituzte Bixkorrak. Lau liburuko bilduma bateko lehen da. •



Tormeseko itsumutila DVDa

Zuzendaria: Juanba Berasategi

ELKAR

XVI. mendeko lan klasikoak egokitu eta marrazki bizidunak egin dituzte hamabi urteko neska-mutilak kontuan izanda. Halaxe, jatorrizko liburuko bi istorio bakarrik ekarri dituzte DVDra: Lazaro eta itsuaren arteko lehia, eta Lazarok Maquedako apaiz zekenaren zerbitzura emandako denboraldia. •

hik hasi-ren proposamena

'BADU BADA'

Euskararen iraupenaren misterioa

“Euskararen egiazko misterioa iraupena da, ez jatorria” zioen Koldo Mitxelenak, eta misterio hori oinarri hartuta, eta euskarak inguruko hizkuntzekin duen bizikidetzaren gainean hausnartzeko helburuarekin osatu da euskararen inguruko *Badu Bada. Euskara mundu eleanitzean* erakusketa. 2012ko udazkenean Donostiako San Telmon inauguratu ostean, eta Baiona zein Gasteiz bisitatu ondoren, Bilboko Alhondegian da otsailaren 24tik maiatzaren 4ra bitartean.

Hizkuntza batek iraungo du, hiztunik badu, erabiltzen bada, bizia bada, lurralderik badu... badu eta bada. Euskarak irauteko baldintzak bete dituelako iraun du gaur egunera arte, baina etorkizunera begira, ze bide dauka euskarak?

Euskararen iraupena ardatz hartuta, mundu eleanitza eta hizkuntzen arteko bizikidetzaren inguruan hausnartu eta eztabaidatzeko gune izateko sortu zen erakusketa Donostiako San Telmo Museoaren eta Etxepare Institutuaren arteko lankidetzatik, Jo-



xean Muñoz komisario eginkizunetan zuela.

Donostian, Baionan eta Gasteizen bere ibilbidea egin ostean, Bilboko Alhondegian izango da otsailaren 24tik maiatzaren 4ra bitartean. Doakoa da sarrera, eta eskola zein hizkuntza eskolentzako bisita-gidatu bereziak egingo dira, horiek ere doan.

Izaera aldakorreko erakusketa da, bisitarien ekarpenek zein egunez eguneko gertaerek aberastuko dutena. Ezohikoa ere bada; hitz egin daite-

ke, idatzi, iritzia eman, kritika egin, argazkiak atera eta bideoak grabatu eta partekatu... bisitari bakoitzak euskarari norbere kolorea emanaz.

Horrexegatik, *Badu Bada* erakusketak Bilbon izango duen espazioan, hainbat esparruri lotutako jarduerak gauzatuko dira: zientzia eta teknologia, arte biziak, sorkuntza literarioa, gazteak, hiri-espazioa, hizkuntza bateko dialektoen arteko eta hizkuntza horren eta beste batzuen arteko elkarbizitza...



Erakusketaren guneak eta aukerak

Hamar gune ditu erakusketak: (A)hotsak; Kodeak; Hizkuntza bizia; Euskara mundu eleanitzean; Euskararen iraupena; Euskararen herria; Erabili, maitatu, ikasi, irakatsi; Gozatu, jolastu; Hizkuntzen elkarbizitza; eta Agurra(k).

Bestalde, “Badubadutzen” izeneko saila ere badu eta honen baitan hainbat jarduera antolatuko dira: hitzaldiak, solasaldiak, tailerrak, bisita gidatuak idazle, bertsolari, aktoreekin, etab.

Euskaldunei nahiz euskaldun ez direnei dago zuzendua erakusketa. Hori dela eta, lau hizkuntzatan osatu dute –euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez–.



‘Badu Bada’

Non: Alhondegia, Arrikibar Plaza, 4 (Bilbo).

Jarduera Osagarrietarako Zentroa. 1. eta 2. solairuak.

Noiz: otsailaren 24tik maiatzaren 4ra

Tel.: 944 014 014

www.badubada.com

Ordutegia

Astelehenetan itxita.

Asteartetik-ostegunera: 11:00-20:00.

Ostirala, larunbata, igandea eta jai-egunak: 11:00-21:00

Sarrera:

Doan.

Ikastetxe, hizkuntza eskola eta euskaltegiertzako bisita-gidatuak

Otsailaren 25etik apirilaren 30era.

Asteartetik ostiralera: 10:00, 11:00, 12:00, 16:00 eta 17:00.

Bisiten iraupena: 60 minutu.

Euskaraz eta gaztelaniaz.

Gainontzeko bisitariertzako bisita-gidatuak

Otsailaren 28tik maiatzaren 2ra.

Ostiraletan: 18:00 euskaraz / 19:00 gaztelaniaz.



atzeko atetik



Jone URIA

BERTSOLARIA

Ez dakit zenbat aldiz entzun behar izango nuen esaldi hori Matematika karrera aukeratu nuela esan dudanean. Eta hori ez bazen, antzekoren bat: “Uff... nik DBHtik ez ditut egin behar izan, baina ordurako gorroto nituen”, “Matematikak? Zenbat eta urrunago hobe, zenbat sufritu nuen haiekin”; beti ere, esaldia harriduratik nazkarraino doazen aurpegietako batekin lagunduta, noski. Ez dira horiek erantzun denak, jakina; bada matematikak gustatzen zaizkionik, edo gutxienez gustatu ez arren interesgarriak iruditzen zaizkionik. Baina gutxi batzuk garelako esango nuke. Horrelako memento bat bizi izan dudana bakoitzean pena eta errua sentitu izan ditut batera.

Pena, euskara ez dakien batek

“Nik matematikak gorroto nituen”

bertsorik ulertu ezingo duelako ematen didan zentzu berean. Matematikak gauza ederra dira. Eta ez naiz matematika sakon eta abstraktuenez ari, oinarri oinarritzkoenez baino. Ez da mundua ikusteko beste era bat besterik. Gauzak era batera definitu, multzokatu, dauzkaten antzekotasun eta bereizgarrien arabera sailkapenak egin, zein propietate betetzen dituzten ikusi, orokortzen saiatu, orokortzen uzten ez digun adibidea identifikatu... Pentsatzeko beste era bat da, beste hizkuntza bat, eta pena handia hartzen dut jendeak nola gutxiesten duen ikusita. Beraiengatik, batez ere.

Errudun ere sentitzen naiz, ez galdetu zergatik. Soberan dakit erruaren parte txikiena ere ez dela nirea, baina hala da. Askotan jarri izan naiz pentsatzen zergatik. Zergatik gorroto dituen jendearen ehuneko handi batek matematikak. “Ni ez nintzen horretarako jai”, “ze txarra nintzen ni matematiketarako” eta horrelakoak entzun izan dizkiot askori. Batetik, ez dut sinesten jendearen ehuneko handi bat ez denik gai matematika oinarritzkoenak ulertu eta menperatzeko, eta bestetik, zenbat gaude musikara-

ko belarri onik izan gabe musika miretsi eta musikaz gozatzen dakigunak? Margotzen jakin ez eta koadro batez disfrutatzen dugunak? Hala behar luke matematikekin ere.

Arazoa bakarra eta sinplea da, nire ustetan behintzat: eskolan ez dizkigute matematikak irakatsi. Bai, badakit lehen hezkuntzako lehen mailatik DBHko laugarrenera dagoen irakaskai bat dela. Izena izango du Matematika, baina edukia ez nuke esango hala denik. Matematikak ez direlako 7ko taula buruz ikastea, deribatu eta integratzen jakitea, zatiketak eskuz-egiteko gai izatea edo matrizeak biderkatzen kalkulutan ez nahastea (nik ere hanka sartzen dut oraindik denetan). Matematikak arrazoitzeko modu bat dira, pentsatzeko modu bat, eta hori da eskolan irakasten ez dena hain justu, ez matematiketan eta ez beste edozein arlotan ere.

Ez dakit zer izan daitekeen honen guztiaren konponbidea, ez daukat problema honetarako emaitza konkreturik nik ere, baina, askotan, planteamenduan akats bat dagoela ikus-tea da soluziora iristeko lehen pausoa.



“Hauxe da gerra aurretik, gerratean eta gerraondan ikasi dudana: agintzen duena egiteko prest ez dagoen gauzarik ezin dakiokela besteri agin”.

Luis Mitxelena

2014 hezitzailea: hezkuntza komunitatea indartzeko **urtea**



Hazi Hezi
harpidetza
20 euro urtean



www.hikhasi.com

Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki!



LOMCEri EZ!

Euskal Herrian behar eta nahi dugun hezkuntza eraikitzeko orduan, hainbat hezkuntza eragilek ondorengo ardatzak hartu nahi ditugu kontuan, ikastetxeetako ikasleekin, familiekin eta langileekin nahiz herritarrekin batera landu eta garatzeko:

- *Ikasleen garapenerako beharrak eta eskubideak bermatuko dituen heziketa integrala ziurtatu (pertsonalizatua, inklusiboa, hezkidetzailoa, kritikoa, laikoa...) eta horretarako behar diren baliabide guztiak izango dituen.
- *Ikasle euskaldun eleoniztunak sortuko dituen.
- *Curriculum propioa izango duena.
- *Ikastetxeen autonomia, parte-hartzea eta funtzionamendu demokratikoa bermatuko dituen.

LOMCEri aurre egiteko nahiz gure hezkuntza propioa eraikitzeko, ezinbestekoa da hezkuntzan dihardugun guztion inplikazioa, baita herritar ororena ere. Horregatik, ikasturte honen bukaerarako eta datorrenerako zenbait ikastetxetan eta herritan antolatuko ditugun ekimenetan parte hartzera dei egiten dizuegu.

Guztion artean lor dezakegu!